

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Tolosako Udala

Ayuntamiento de Tolosa

2020





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	9
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa	9
III.3 Langileria	9
III.4 Kontratazioa	10
III.5 Transferentziak eta dirulaguntzak	10
III.6 Beste alderdi batzuk	11
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	12
V. URTEKO KONTUAK	14
V.1 Udala	14
V.2 Iurreamendi Egoitza Erakunde Autonomoa	17
V.3 Udal sozietateak	18
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria	19
A.2 Aurrekontua eta aldaketak	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	21
A.5 Pertsonaleko gastuak	23
A.6 Ondasun korronteen eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa	24
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	26
A.8 Aurrekontuko zordunak eta pasibo korrontea	28
A.9 Aktibo ez-korrontea	30
A.10 Udal sozietateak	32
A.11 Kontratazioaren analisisa	34
ALEGAZIOAK	37



ABREVIATURAS	49
I. INTRODUCCIÓN	51
II. OPINIÓN	52
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	52
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	52
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	53
III.1 Presupuesto y contabilidad	53
III.2 Ingresos y recaudación.....	53
III.3 Personal.....	53
III.4 Contratación	54
III.5 Transferencias y subvenciones	55
III.6 Otros aspectos.....	55
IV. ANÁLISIS FINANCIERO.....	56
V. CUENTAS ANUALES.....	58
V.1 Ayuntamiento.....	58
V.2 Organismo Autónomo Residencia Yurreamendi.....	61
V.3 Sociedades Municipales	62
ANEXOS.....	63
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	63
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	63
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	64
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos.....	65
A.5 Gastos de personal	67
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones	68
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	70
A.8 Deudores presupuestarios y Pasivo corriente	72
A.9 Activo no corriente	74
A.10 Sociedades municipales	76
A.11 Análisis de contratación	78
ALEGACIONES	81



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BGAE	Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
Erretengibel	Erretengibel Tolosako Alde Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko S.A.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
GUK	Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LEI	Lanerako Ezintasun Iragankorra.
LPZ	Lanpostuen zerrenda.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Tolosako Udalaren 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Okorrrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren, bere erakunde autonomoaren eta bere sozietate publikoen balantzea, ekonomiaren eta ondarearen emaitzaren kontua, oroitidazkia eta aurrekontuaren likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Tolosako udalerriak 19.816 biztanle zituen 2020ko urtarrilaren 1ean eta Udalean, udal administrazioak gain, erakunde autonomo bat eta 4 udal sozietate publiko barne hartzen ditu.

- Iurreamendi Egoitza Erakunde Autonomoa
- Erretengibel Tolosako Alde Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko S.A. (% 100): alde zaharra zaharberritzea.
- Tolosa Lantzen S.A. (% 100): kirol instalazioak kudeatzeko zerbitzua.
- Tolargi S.L. (% 100): Behe-tentsioko banaketa elektrikoko sarea mantentzea.
- Tolosa Gasa S.A. (% 100): gasaren banaketa-sarea mantentzea.

Udalak 2020an erabaki zuen erakunde autonomoa, Erretengibel eta Tolosa Lantzen S.A. desegitea (ikus A.9). Gainera, zaborrak biltzeko zerbitzua kudeatzen duen Tolosaldeko Mankomunitatearen eta GFari atxikitako Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren parte da, zeinak udalerriko ur-hornikuntza eta saneamendu zerbitzua ematen duen.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak 3,7 milioi euroan esleitu zuen udal musika bandaren zerbitzua, eta 25 urteko indarraldia ezarri zuen, horretarako arrazoi justifikaturik izan gabe (ikus A.11).
2. Bide publikoetako aparkalekuak, hiriko garraio publikoa eta diru-bilketarako laguntza arautzeko zerbitzuen kontratuak 725.626 euroren kostua izan zuten 2020an. Zerbitzu horiek arautzen dituzten kontratuen indarraldia 2019an eta 2020ko urtarrilean amaitu zen, eta Udalak ez zuen aurretik lizitazio berririk abiarazi, publikotasun- eta lehia-printzipioak betez (ikus A.11).
3. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu zituen kontratu txiki modura izapidetzean aseguruaren kontratu pribatua eta zine-pelikulen hornidura; kontratu horiek 170.461 euroren kostua eragin zuten 2020an (ikus A.11).

Epaitegi honen iritzira, Tolosako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2020ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Udalaren ibilgetu materialak ez du jasotzen 2016a baino lehenagoko inbertsioen kostu garbia azpiegiturretan. Udal Inbentarioaren arabera, erosketa kostua 31,5 milioi euro izan zen. Halaber, ez dira jasotzen 2007an 50 urterako emakidan esleitutako adinekoentzako aparkalekuak eta zerbitzu-zentroak, 13,9 milioi euroren eraikuntza-kostu zenbatetsidunak. Aktibo horiek arrazoizko balioaren arabera erregistratu beharko lirake aktiboan, zenbateko bereko saldoa duen Ondare Garbian eta Pasibo Ez Korrontean kontraktua izanik, hurrenez hurren (ikus A.9).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, Tolosako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2020ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Gure iritzian eraginik ez badu ere, azpimarratu nahi dugu Kontu Orokorra barne hartzen dituela Tolosa Lantzen S.A.ren, Erretengibel S.A.ren eta Iurreamendi Egoitza erakunde autonomoaren kontuak eta hiru erakunde horiek desegiteko erabakiak. Udalaren ondare-kontuek eta bere Geldikinak 2020ko abenduaren 31n erabaki horien ondorioak islatzen dituzte (ikus A.9).



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira ekonomia eta finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak ez ezik, baita kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Udalaren 2020ko aurrekontuaren likidazioa maiatzaren 24an onartu zen, onartzeko legezko epea martxoaren 31n amaitu bazen ere.
- Ekitaldi itxietako eskubideen baliogabetzeak, 481.883 eurorenak, ondare-kontabilitatean ekitaldiko diru-sarrerak murriztuta erregistratu ziren, aurreko ekitaldietako emaitzei egotzi beharrean.
- Balantzeko pasibo korronteko eskudiruzko fidantzen kontuak 2016 baino lehenago sartutako bermeak barne hartzen ditu, 270.257 eurorenak eta komeni da aztertzea horien egiazko eskagarritasuna.
- Erretengibel S.A. enpresaren integrazioa zela eta, orubeak Udalaren ibilgetuan gehitu ziren, 3,5 milioiko eskuratze-kostuarekin, eta horien gauzatze-balioa kuantifikatu beharko litzateke, balio-zuzenketa bat behar ote duten zehazteko.
- Tolargi S.A.ren memoriak ez du bere lan-hitzarmenean aurreikusitako erretiro-sariengatiko kontingentziaren berri ematen. Komeniko litzateke, halaber, Udalak sozietate horri 2016an egindako mandatua egokitzea, eta harekiko harremanak bideratzeko beste aukera batzuk aztertzea.
- Tolosa Gasa, S.A.k 24.000 euroko laguntza eman zion elkarte bati, nahiz eta bere aurrekontuan ez zegoen dirulaguntzak emateko krediturik.

III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- Hiri lursailen balio igoeraren gaineko zerga atzerapenez kitatzen da. Honela, bada, urte horretako sarreraren % 95 aurreko urteetako eskualdaketei dagozkie (ikus A.3).
- Udalak ez ditu trafiko-zehapenengatiko diru-sarrerak kitatzen dituenean aitortzen, kobratzen direnean edo premiatzen direnean baizik.

III.3 LANGILERIA

- Udalaren lan-baldintzak Udalbatzak 2008an onartu zituen eta Udalhitz akordioei atxiki zitzairen, aldeztu aurretik aitortutako baldintzarik onuragarrienak mantenduz, azken horiei publikotasunik eman gabe. Halaber, ez zitzaion publikotasunik eman 2020ko ordainsari igoera onartu zuen erabakiari.
- Bitarteko funtzionarioen 11 izendapenetan, 2020an beste 2 udaletako lan-poltsetara jo zen. Araudiak ez du aurreikusten beste udal batzuetako lan-poltseta baliatzea.



- Udalak ez dizkio Foru Ogasunari aitortzen langileei ordaintzen dizkien gauzazko ordainsariak, batik bat bizitza aseguruak, 2020an 55.076 euro egin dutenak.

III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 5 kontratu nagusiak aztertu ondoren -13,8 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.11):

- 2,7 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan (1. eta 3. espedienteak) proportzionaltasun sinpleko formula bat erabili zen, prezio-faktorearen benetako balioa murrizten zuena. (A1 akatsa).
- Beotibar udal-pilotalekuari erantsitako ostalaritza-zerbitzuaren emakida (milioi 1 euro), 723.405 euroren aurrekontua zuten birmoldaketa-lanak egitea eskatzen zuen; ordea, obra bukaeraren ziurtagiria egin gabe zegoen txosten hau idatzi zenean (B akatsa).
- Laskoain kaleko instalazioak berritzeko (546.471 euroan esleitua) obra ebazpena 20 egun atzeratu zen, araudiak agintzen duen 2 hilabeteko epearen aldean. Gainera, 5 lizitatzailerei egindako jakinarazpenak ez zuen araudiak agintzen duen informazio zehatza jasotzen (B akatsa).

Beste erosketa batzuk

- Tolosa Gasa, S.A.k 296.329 euro ordaindu zituen 2020an sozietatearen kudeaketa gastuengatik bere kapitalaren % 40ren jabe den entitateari. Udalak sozietate hori 1991n sortu zuen udalerrian zerbitzu emateko eta horren kudeaketa bazkide minoritarioari esleitu zion. Estatutuek iraupen mugagabea aurreikusten dute, baina araudian aurreikusitako gehieneko epea 50 urtekoa zen, eta egindako inbertsioek 35 urteko balio-bizitza dute. Horregatik guztiagatik, komeniko litzateke zerbitzuaren araudi juridikoa aldatzea, eta are zerbitzua bera zalantzan jartzea ere.
- Udalak 87.672 euroren kostua izan zuten 3 kontratu erosketa txiki modura izapidetu zituen, SPKLren 159.6 artikulua xedatzen duen prozedura ireki sinplifikatu bidez izapidetu beharrean (ikus A.11).
- Esparru-akordioetatik eratorritako kontratuen esleipenak kontratatzailearen profilean argitaratu behar dira. Baldintza hori ez du betetzen Udalak energia elektrikoaren eta gasaren horniduren kasuan.

III.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Dirulaguntzengatik konpromisoen saldoa (296.369 euro) (D-O) sortutako dirulaguntzen gastuari dagokio, baina gastu gisa aitortu gabe oraindik, itxiera-datan likidatu ez delako. Komeniko litzateke justifikazio-epeak ezartzea, emandako dirulaguntza nagusiek eragindako gastua ekitaldiko gastutzat hartu ahal izateko (ikus A.7).
- Gastuen 4. kapituluko zortzi aurrekontu-partidak laguntzen eta dirulaguntza izendunen deialdietarako diru-izendapenak biltzen zituzten. Azken horiek, dagokion aurrekontu-



eranskinean zehazten diren arren, gastuen egoera-orrian banan-banan zehaztu behar dira.

- Uzturre zentroan adineko autonomoentzako logelak eta etxebizitzak alokatzeko dirulaguntza, 114.626 euro 2020an, itzultzeko moduan ematen da, zerga-bilketako udal-zerbitzuak garatu beharko lituzkeen kudeaketan bidez.
- Faktura edo dokumentu baliokidearekin justifikatutako gastuak Tolosa CFri ordaindutako 100.000 euroko dirulaguntza izenduna baino handiagoak izan arren, erakunde horren gastuen % 35 jaso izanaren agiriekin justifikatzen dira. Gainera, elkarte horrekiko hitzarmena 2018an onartu zen, 2021era arteko indarraldiarekin, eta horrek urte anitzeko kreditua onartzea eskatzen zuen.

III.6 BESTE ALDERDI BATZUK

- Gardentasun-araudia behar bezala betetzeko, Udalak webgunean honako hauei buruzko informazioa argitaratu beharko luke: urteko kontuak, egonkortasun-helburuak, langileen kontratazio- eta absentismo-prozedurak, udal-ondasun higiezin zerrendak eta goi-kargudunen ordainsariei buruzko informazioa. Gainera, Tolosa Gasa S.A. udal sozietateak ez du web orririk, eta Udalaren webguneak ez du haren jardueri buruzko informaziorik jasotzen. Azkenik, udal-laguntzak jasotzen dituzten elkarteek gardentasun-araudiaren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko litzateke, batez ere aurrekontuei eta urteko kontuei dagokienez.
- Udalak ez du Udalbatzak 2009an onartutako udal-ordenantzak araututako hirigintza-hitzarmenen nahitaezko erregistroa egiten.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua:

FINANTZAREN ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2018 (*)	2019 (*)	2020	2018 (*)	2019 (*)	2020
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	10.725	11.000	10.454	549	559	527
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	14.920	15.578	14.325	764	792	723
Ondare sarrerak (5. kap.).....	502	524	515	26	27	26
A. Sarrera korranteak.....	26.147	27.102	25.294	1.339	1.378	1.276
Pertsonaleko gastuak (1. kap.).....	8.366	8.951	9.296	428	455	469
Ondasun korranteen erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	8.455	8.954	8.049	433	456	406
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	3.743	3.958	3.502	192	201	177
B. Funtzionamendu-gastuak.....	20.564	21.863	20.847	1.053	1.112	1.052
Aurrezki gordina (A-B).....	5.583	5.239	4.447	286	266	224
- Gastu finantzarioak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Emaitza korrantea.....	5.583	5.239	4.447	286	266	224
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	(1.083)	(1.087)	(954)	(55)	(55)	(48)
Aurrezki garbia.....	4.500	4.152	3.493	231	211	176
Inbertsioen besterentzea (6. kap.).....	346	103	82	18	5	4
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	69	207	90	4	11	5
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(2.004)	(3.229)	(1.237)	(103)	(164)	(62)
- Emandako kapital-dirulaguntzak (7. kap.).....	(482)	(111)	(56)	(25)	(6)	(3)
Kapitalezko eragiketen emaitza.....	(2.071)	(3.030)	(1.121)	(106)	(154)	(56)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	3.512	2.209	3.326	180	112	168
Diruzaintza-geldikin likidoa.....	12.349	13.160	15.479	632	669	781
GODG (9,7 milioi 2017.12.31n).....	12.171	13.158	15.479	623	669	781
Zorpetzea 12.31n.....	6.192	5.104	4.150	317	260	209

(*) Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera korranteak: % 3,3 egin dute behera 2018ko urtearen aldean.

- Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak: % 2,5 murriztu izana hainbat osagaik eragin dute, eta nabarmentzekoak dira EIOZ, jabari publikoaren okupazio pribatiboagatik tasak eta hainbat diru-sarrera epigrafea.
- Transferentziak eta dirulaguntzak: % 4 egin dute behera, izan ere osagai nagusia, itunpeko zergetan partaidetza, alegia, % 4,7 murriztu zen, COVID 19aren krisiaren eraginez horren dirubilketa murriztearekin.

Funtzionamendu-gastuak: % 1,4 egin dute gora 2018 eta 2019 bitartean:

- **Pertsonaleko gastuak:** % 11,1 igo dira, batez ere funtzionarioen eta lan-kontratuko langile finkoen ordainsariak % 27,4 igo direlako, neurri batean 2019an eta 2020an izandako % 2,8ko eta % 2ko soldata-igoeren ondorioz. Halaber, azpimarratzekoa da aldi



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

baterako lan-kontratuko langileen ordainsarien murrizketa, % 51,6 txikiagoa izan baita 2020an 2018aren aldean.

- **Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa** % 4,8 egin zuten behera eta azpimarratzekoa da beherakada uraren, gasaren eta bestelakoen horniduretan, jarduera soziokulturaletan eta hainbat gastutan.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 6,4 jaitsi dira, Iurreamendi Egoitza Erakunde Autonomoa GFARI eskualdatzearen eta udal-sozietate batzuk integratzearen ondorioz; gainera, murriztu egin dira mendeko erakundeei egindako transferentziak.

Aurrezki gordina, garbia eta zorpetzea: Eragiketa korronteetatik lortutako aurrezki gordina urtean milioi bat euroren maileguak amortizatzeraz bideratu da, eta ekitaldi bakoitzeko kapital-eragiketak finantzatzeko 3,5 eta 4,5 milioi euro bitartean gelditzen da. 2020ko aurrezki garbia sarrera korronteen % 13,8 zen, eta aldi horretako bilakaera negatiboa izan da COVID-19aren krisiak udalen diru-sarreretan izan duen eraginaren ondorioz. 2020ko abenduaren 31ko zorpetzea sarrera korronteen % 16,4 izan zen, eta 2025ean amaituko da indarrean dauden maileguen amortizazioa.

Kapital-eragiketen emaitza: Hirurtekoan egindako inbertsioak 6,5 milioi eurorenak izan dira, sarrera korronteen % 8,2, eta kapitalezko dirulaguntzen, aktiboen salmenten eta hirigintzako aprobetxamenduen bidez finantzatu dira % 13,9an.

Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina: 5,8 milioi euro egin du gora 2017ko abenduaren 31n zegoenak, izan ere hirurtekoan sortutako aurrezki garbiak kapitalezko eragiketen emaitza gainditu du. 2020ko abenduaren 31n Diruzaintza geldikina 15,5 milioi euro izan zen, ekitaldi horretako sarrera korronteen % 61,2.

Ondorioa: COVID-19aren krisiak diru-sarrera korronteetan izan duen eraginak zigortu egin du eragiketa korronteetan eskuratutako aurrezki-maila, baina gastuak handitu diren arren, 2020an sarrera korronteen % 13,8ko aurrezpen garbia eskuratu da. Hirurtekoan sortutako aurrezpena erabili da zorpetzea 3,1 milioi euroan murrizteko eta kapital-eragiketak 6,2 milioi euroan finantzatzeko; 5,8 milioi euro gelditzen dira, GODGra pasa direnak, zeina 2020ko diru-sarrera korronteen % 61,2 baita.

Aurrekontuaren egonkortasuna: COVID-19aren krisiaren ondorioz, eten egin ziren 2020rako ezarritako helburuak. Hala eta guztiz ere, Kontuhartzaitzaren txostenak adierazi du helburuak bete direla, eragiketa ez-finantzarioetan superabita izan dutelako, zorpetzea diru-sarrera korronteen % 16,4 izan delako eta gastu konputagarria % 14,4 murriztu delako 2019arekin alderatuta. Udal-sozietatei dagokienez, Tolargi S.A.n galerak izan zirela adierazi da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2020KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Miles de euros

DIRU-SARR.	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB. AITOR.	KOB.R. KOB.R.	KOB.R. GABEA	%
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Zerga zuzenak	A.3	5.837	-	5.837	5.849	5.507	342	% 100
2. Zeharkako zergak	A.3	505	-	505	286	131	155	% 57
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	4.673	-	4.673	4.319	3.372	947	% 92
4. Transferentzia korranteak	A.4	15.427	86	15.513	14.325	13.062	1.263	% 92
5. Ondare-sarrerak	-	533	-	533	515	494	21	% 97
6. Inbertsio errealeen besterentzea	A.4	400	-	400	82	82	-	% 21
7. Kapitalezko transferentziak	A.4	-	103	103	90	90	-	% 87
8. Aktibo finantzarioak	-	-	7.761	7.761	-	-	-	(*) -
SARRERAK, GUZTIRA		27.375	7.950	35.325	25.466	22.738	2.728 (*)	% 92

(*) Egikaritzaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAINK.	ORDAIN. GABEA	%
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Pertsonaleko gastuak	A.5	9.854	595	10.449	9.296	9.291	5	% 89
2. Ondasun korr. eta zerbitz. kontrat.	A.6	10.545	1.269	11.814	8.049	6.579	1.470	% 68
3. Gastu finantzarioak	-	30	-	30	-	-	-	-
4. Transferentzia korranteak	A.7	4.003	1.364	5.367	3.502	2.913	589	% 65
6. Inbertsio errealak	A.6	1.670	4.601	6.271	1.237	1.006	231	% 20
8. Aktibo finantzarioak	-	185	121	306	56	25	31	% 18
9. Pasibo finantzarioak	-	1.008	-	1.008	954	954	-	% 95
GASTUAK, GUZTIRA		27.375	7.950	35.325	23.094	20.768	2.326	% 65
SARRERAK - GASTUAK					2.372			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSKINA	HASIERAKO		BALIOG.	ORDAINK.	AZKEN
		ZORRA	ZORRA			
Kobratzeko dauden saldoak	A.8	4.707	(482)	1.848	2.377	
Ordaintzeko dauden saldoak		3.137	1	3.132	4	
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(481)			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	25.466
Obligazio aitortuak	23.094
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	2.372
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(481)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	1.891
Finantzaketako desbideratzeak	3
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	1.885
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	3.779

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 20.1.1ean.....	15.874
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza.....	1.891
Udalari atxikitako erakundeen geldikinak eta BEZaren erregularizazioa..... (A.9)	377
DIRUZAINZA-GELDIKINA 20.12.31N	18.142
Diruzaintzako funts likidoak	16.518
Sarreraren aurrekontuko zordunak	5.105
Aurrekontuz kanpoko zordunak	835
Gastu-aurrekontuaren hartzekodunak	(2.330)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(1.986)
DIRUZAINZA GELDIKINA 20.12.31N	18.142
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak..... (A.8)	(2.663)
GODG 20/12/31N	15.479
ZORPETZEA 2020/12/31N (A.8)	4.150



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEAK ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK.	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSK.	2020	2019
AKTIBO EZ-KORRONTEA		107.319	102.156	ONDARE GARBIA		118.572	109.728
Ibilgetu ukiezina.....	A.9	1.340	1.337	Ondarea	-	20.546	20.546
Ibilgetu materiala	A.9	98.544	75.431	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	-	87.271	84.490
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.9	4.854	-	Ekitaldiko emaitza.....	-	3.142	2.778
Lurraren Ondare Publikoa	A.9	1.014	1.026	Jasotako dirulag., egozteko zain	-	7.613	1.914
Taldeko enteent e/luz.fin. inb.....	A.9	1.535	24.330				
Epe luz. finantza inbertsioak	A.9	32	32	PASIBO EZ-KORRONTEA		3.484	4.479
				Epe luzeko zorrak	A.8	3.192	4.163
				Aldizkatzeagat. doiketak. epe/luz.....	-	292	316
AKTIBO KORRONTEA		20.012	17.737	PASIBO KORRONTEA		5.275	5.686
Izakinak	-	214	-	Epe laburreko hornidurak.....	-	-	168
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.8	3.006	1.730	Epe lab. zorrak.....	A.8	1.844	2.454
Epe lab. finantza inbertsioak	A.8	271	350	Hartzek. eta ordain. bst kontu b.....	A.8	3.431	3.064
Aldizkatzeagatiko doikun.....	-	3	-				
Eskud., bst. aktibo likido batzuk..	-	16.518	15.657				
GUZTIRA		127.331	119.893	GUZTIRA		127.331	119.893

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	2020	2019
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	8.853	9.313
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	14.763	15.652
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.....	1.986	1.910
Hornidura soberakinak.....	173	-
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA	25.775	26.875
Pertsonaleko gastuak	(9.432)	(9.042)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(3.747)	(4.069)
Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk	(8.366)	(9.005)
Ibilgetua amortizatzea.....	(2.510)	(1.767)
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA	(24.055)	(23.883)
KUDEAKETA KORRONTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	1.720	2.992
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantz. eta salgai diren aktiboak bestereng. emaitz.	66	-
Korrontek ez diren beste partida batzuk.....	38	50
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	1.824	3.042
Sarrera finantzarioak.....	308	328
Gastu finantzarioak.....	(1)	-
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(A.9) 1.011	(592)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	1.318	(264)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	3.142	2.778



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 IURREAMENDI EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	AURREKONTUA			ESKUB.	KOB.R.		%
	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.	AITOR.	KOBR.	GABEA	EGIK.
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	1	-	1	1	1	-	% 100
4.- Transferentzia korronteak	25	-	25	-	-	-	-
SARRERAK, GUZTIRA	26	-	26	1	1	-	% 100

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.	AITORT.	ORDAINK.	GABEA	EGIK.
2. Ondasun korrante eta zerbitz. kontrat.	26	-	26	1	1	-	% 4
GASTUAK, GUZTIRA	26	-	26	1	1	-	% 4

DIRUZAINZA GELDIKINA

Euroak milakotan

Diruzaintzako funts likidoak	104
DIRUZAINZA GELDIKIN GORDINA = GODG 20/12/31N	104

BALANTZEAK ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2020 (*)	2019		2020 (*)	2019
AKTIBO EZ-KORRONTEA	4.496	4.608	ONDARE GARBIA	4.600	4.712
Ibilgetu materiala	4.496	4.608	Ondarea	4.319	4.319
			Aurreko ekitaldietako emaitzak	830	830
AKTIBO KORRONTEA	104	104	Ekitaldiko emaitza	(549)	(437)
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak		104			
GUZTIRA	4.600	4.712	GUZTIRA	4.600	4.712

(*) Desegindako entitatea: 2020an bere aktiboak eta pasiboak Udalari lagatzea adostu zuen.

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	2020 (*)	2019
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak	-	474
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	-	818
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.	1	1
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA	1	1.293
Pertsonaleko gastuak	-	(686)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(112)	-
Kudeaketa korronteko bst gstu batz.	(1)	(840)
Ibilgetua amortizatzea	-	(204)
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA	(113)	(1.730)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	(112)	(437)

(*) Desegindako entitatea: 2020an bere aktiboak eta pasiboak Udalari lagatzea adostu zuen.



V.3 UDAL SOZIETATEAK

BALANTZEAK 2020KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	TOLARGI	ERRETENGIBEL (*)	LANTZEN (*)	GASA
AKTIBO EZ-KORRONTEA	1.912	5.026	17.634	587
Ibilgetu ukiezina	88	1	-	-
Ibilgetu materiala(A.10)	1.824	171	936	490
Ibilgetuko inbertsioak(A.10)	-	4.854	16.698	-
Epe luzeko inbertsio finantzarioak	-	-	-	97
AKTIBO KORRONTEA	639	222	658	888
Izakinak	-	214	-	1
Merkataritzako zordunak eta kobratz. kontuak.....	167	-	469	226
Taldeko enpresetan epe motzeko inbertsioak	-	-	-	634
Epe laburreko finantza inbertsioak	-	-	-	27
Aldizkatzeak epe laburrera.....	-	3	-	-
Eskud. eta beste aktibo likido baliokide batz.	472	5	189	-
GUZTIRA	2.551	5.248	18.292	1.475
ONDARE GARBIA	1.678	5.237	18.183	1.323
Funts propioak	1.344	4.068	9.293	1.294
Kapitala	30	3.939	12.586	651
Erreserbak.....	1.395	(3)	-	346
Aurreko ekitaldietako emaitzak	-	(786)	(3.099)	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	-	878	-	-
Ekitaldiko emaitza	(81)	40	(194)	297
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak.....	334	1.169	8.890	29
PASIBO EZ-KORRONTEA	258	-	-	9
Epe luzeko zorrak.....	181	-	-	-
Gerorat. zergarengatiko pasiboak	77	-	-	9
PASIBO KORRONTEA	615	11	109	143
Epe lab. zorrak	14	3	12	-
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b.	601	8	97	143
GUZTIRA	2.551	5.248	18.292	1.475

(*) Desegindako sozietateak: 2020an beren aktiboak eta pasiboak Udalari lagatzea adostu zuten.

GALERA-IRABAZIEN KONTUAK 2020

Euroak milakotan

	TOLARGI	ERRETENGIBEL (*)	LANTZEN (*)	GASA
Negozio zifraren zenbat. garbia(A.10)	1.395	-	-	883
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....(A.10)	-	115	536	-
Pertsonaleko gastuak.....(A.10)	(562)	-	(68)	(69)
Bestelako ustiapen gastuak.....(A.10)	(753)	(105)	(338)	(401)
Ibilgetua amortizatzea	(172)	(33)	(629)	(31)
Dirulaguntzak egozteak.....	13	66	303	1
Ibilgetua besterenganatzeag. narriadura eta emaitza	-	-	-	(2)
USTIAPENAREN EMAITZA	(79)	43	(196)	381
EMAITZA FINANTZARIOA	(1)	(1)	2	2
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(80)	42	(194)	383
Mozkinen gaineko zerga.....	(1)	(2)	-	(86)
EKITALDIKO EMAITZA	(81)	40	(194)	297

(*) Desegindako sozietateak: 2020an beren aktiboak eta pasiboak Udalari lagatzea adostu zuten.



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Tolosako Udala Administrazioako toki entitatea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu horiek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare-sarrerak, dirulaguntzak eta kreditu-eragiketak.

Ekitaldian ezargarrria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 21/2003 Foru Arauak jasotzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 86/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

Hona hemen, 2020ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Gehikuntza	Kreditu gehigarria	Gaikuntzak	Euroak milakotan		GUZTIRA
				Transferentziak +	-	
4. Transferentzia korronteak	3	-	83	-	-	86
7. Kapitalezko transferentziak eta dirulagun.	32	-	71	-	-	103
8. Aktibo finantzarioen bariazioa: Geldikina	2.332	5.429	-	-	-	7.761
SARRERAK, GUZTIRA	2.367	5.429	154	-	-	7.950
1. Pertsonaleko gastuak.....	-	595	-	-	-	595
2. Ondasun korronteko eta zerbitz. gastuak	405	1.065	-	59	(260)	1.269
4. Transferentzia korronteak	232	941	83	139	(31)	1.364
6. Inbertsio errealak.....	1.730	2.778	-	93	-	4.601
7. Kapitalezko transferentziak eta dirulagun.	-	50	71	-	-	121
GASTUAK, GUZTIRA	2.367	5.429	154	291	(291)	7.950

Onartutako 15 aldaketa-espeditenteek gastuen hasierako aurrekontua % 29,04 gehitu dute. Udalbatzak aldatetetatik 4 onartu zituen eta 2 kasutan 1,2 milioi euroren kreditu gehigarriak baliokidetu zituen, COVID 19aren krisiak eragindako gastuetarako alkatetza-dekretu bidez aldeztu aurretik onartutakoak.

2020ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2021eko martxoaren 24ko alkatetzaren dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2021eko uztailaren 29ko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluek izandako diru-sarrerak:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Sarrera
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	3.936
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.....	1.335
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.....	329
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera	249
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	5.849
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	286
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	286
Zabor-bilketa (urteko tasa likidatua eta 2020ko abuztuan jakinarazia)	1.450
Musika Eskola	115
Etterako laguntza zerbitzua eta beste Gizarte zerbitzu batzuk	118
Leidor zinema eta beste kultur jarduerak batzuk	155
Euskaltegia	79
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak	171
TAO	574
Jabetza publikoa okupatzeagatik tasa (aldamioak, terrazak, ibiak, azokak etab.).....	297
Enpresa hornitzaileek lurra, lurpea eta hegala okupatzea	133
Aurreko ekitaldietako itzulketak	38
Elektrizitatearen hornidura	542
Isunak	124
Premiamendu eta berandutza interesen errekaruak	77
Telefonia enpresak	83
Tolosa Lantzen S.A. Pertsonaleko kostua berdintzea	214
Bestelako diru-sarrera txikiak	149
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	4.319
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	10.454

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga atzerapenez likidatu zen eta 2020ko diru-sarreraren % 95 aurreko ekitaldietako eskualdaketei dagokie. Hori dela eta, 2021ean 128.303 euroren diru-sarrerak aitortu dira, 2020ko abenduaren 31 baino lehenagoko eskualdaketen ondorioz. Konstituzio Auzitegiak 2021eko urrian emandako epaiak ez die eragiten epaia eman zenean irmoak ziren likidazioei, baina aurreko eskualdaketak likidatzea galarazten du, zerga-oinarriaren kalkulua arautzen zuten artikulua baliogabetzat jo baitziren.

Udalak, 2006. urtean, uraren hornidurarako eta saneamendurako udal-zerbitzuak transferitu zizkion Gipuzkoako Ur Kontsortzioari, 2021eko abendura arteko hitzarmenaren bidez; Kontsortzioak Udalari 2,3 milioi euroren kanon bat ordaindu zion eta 3,4 milioi euroren inbertsioak egin zituen. 2022ko urtarrilean zerbitzua Kontsortzioari beste 15 urtetarako eman zitzaion eta Kontsortzioak Udalari 2,8 milioi ordaindu behar izan dizkio kanon kontzeptuan eta 4,2 milioi euroren inbertsioak egin.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen transferentzia korronteez eta kapitalezko transferentziek eragindako sarreren xehetasunak:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBAT.
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	
UFFF-zerga itunduetan partaidetza:2020ko aurrerakinak.....	11.935
UFFF-Itunpeko zergetan partaidetza: 2020ko likidazioa (2021eko otsaila)	815
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	266
2020ko funtsa, gizarte zerbitzuen mapa garatzea	68
Ezohiko funtsa COVID 19	57
Itundu gabeko zergak, kirola, genero berdintasuna, arte eszenikoak, etab.....	99
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	
Udal euskaltegia 2019-20 ikasturtea (guztizkoaren % 92,8).....	303
Udal euskaltegia 2020-21 ikasturtea (guztizkoaren % 7,2).....	25
Musika eskola, 2018-19 ikasturtea	190
Musika eskola, 2019-20 ikasturtea	185
2020ko GLL eta 2019ko osagarria.....	199
Mendekotas., Santa Luzia-Guadalupe berroneratzea, liburutegia, familia elkargunea, etab.....	129
BESTE BATZUK	
Mankomunitatea: zaborren garraioagatiko sarreran partaidetza	31
Zineuskadi fundazioa (Leidor aretoa) eta Tolosaldeko Hiltegiaren Mankom.	23
4. KAPITULUA GUZTIRA	14.325
EAE: eskoletako inbertsioa eta merkataritza kaleetan hobekuntzak.....	26
GFA: Merkataritza-sektorean COVID 19 inbertsioak, landabideak eta ur gordailua	64
7. KAPITULUA GUZTIRA	90

Udalak itundutako zergetan (Udal Finantzaketarako Foru Funtza) parte hartzeagatiko aurrerakinak 2021eko otsailean likidatu ziren, eta Udalaren aldeko saldoa 815.039 euro izan zen; diru hori 2020ko diru-sarrera modura erregistratu zen.

EAEren musika eskolarentzat 2019-20 ikasturterako 184.937 euroren dirulaguntza 2020ko abenduan onartu zen eta 2021eko otsailean onartu zen. Etxez etxeko laguntzarako udal-zerbitzuari emandako foru-dirulaguntza hiru hilean behin likidatzen da, aurreko aldian emandako zerbitzuen datu errealekin. 2020ko 4. hiruhilekoaren likidazioa, 72.391 euro, GFAk 2021eko otsailean jakinarazi zuen, baina Udalak 2020ko diru-sarrera gisa erregistratu zuen zenbateko hori, ekitaldi horretan sortu baitzen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ondare-sarrerak eta inbertsioen besterentzea

Hona hemen 2020ko ekitaldian 5. eta 6. kapituluko diru-sarrerak zein izan diren:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Zenbatekoa	
Tolosa Gasa S.A. eta Zazpiturri S.A. udal-sozietateen 2019ko dibidenduak	228	
Udal etxebizitzaren alokair. Agaramundu (24), Euskal Herria pza.(25), Kondeaneko Aldapa (11) eta bst.....	185	
Arrilagako garajeko plazak, lokalak eta beste alokatzea.....	60	
Frontoiko ostalaritza-emakiden kanona, Euskal Herria pza. eta beste	42	
5. KAPITULUA GUZTIRA	515	
Beotibar, 8 eraikigarritasunaren gehikuntzaren hirigintza-aprobetx. (12 etxebizitza eta lokalak)	82	
6. KAPITULUA GUZTIRA	82	

Tolosa Gasa S.A.ko eta Zazpiturri S.A.ko Batzar Nagusiek 2021ean erabaki zuten 2020ko emaitzak osorik banatzea, eta Udalari 215.454 euro dagozkio guztira, 2021eko diru-sarrera gisa erregistratuak.

Udalak bi udal-eraikin obra-zerbitzuaren emakida-kontratueta atxiki zituen, esleipendunak egin beharreko hobekuntza-obra aurreikusten zituztenak, eta hari zaharberritutako eraikinen 30 urteko erabilera ematen zitzaion, Udalari ordaindu beharreko kanon baten truke:

Emakidaren helburua	Euroak milakotan	
	Zenbatekoa Obra BEZik gabe	Kanona urtekoa (*)
Taberna-hotela Euskal Herria plazan	1.244	43
Beotibar frontoiari atxikitako taberna-jatetxea (ikus A.11)	1.172	34
GUZTIRA	2.416	77

(*) 2016an eta 2019an esleitutako zenbatekoak



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.5 PERTSONALEKO GASTUAK

Gastu-kapitulu hau era honetara xehakatzen da:

Euroak milakotan			
KONTZEPTUA	Gastua	LZ	Plantilla 20.12.31
Korporaziokideak (alkatea eta 6 zinegotzi).....	385	-	7
Behin-behineko langileak.....	43	2	2
Funtzionarioak.....	5.164	129	(*) 131
Lan kont. finkoko lang. (19 lanpostu dedikaz. partzialarekin % 16-75).....	816	46	(**) 22
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	604	-	(***) 29
Ordainsarien guztizko partziala.....	7.012	177	191
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	1.995		
Elkarkidetza BGAeri ekarpenak: pentsioen osagarriak.....	144		
Lan harreman profesion. ebazten duen epaia: kaleratzeagatiko kalte-ord.	81		
Aseguruak eta prestakuntza.....	64		
GUZTIRA	9.296		
(*) 57 bitarteko funtzionario plaza hutsetan, programako edo zereginen pilaketako 10 bitarteko funtzionario eta titularrak aldi baterako ordeztuz 2 (LElak, oporrak, etab.).			
(**) 2 lan-kontratudun finko, funtzionario-plazak betetzen.			
(***) 25 bitarteko langile lanpostu hutsak betetzen eta 4 obra kontratu (Lanbide enplegu-plana).			

Langileen ordainsariak % 2 egin zuten gora, 2019an indarrean zeuden aldean.

Udalak Gizarte Segurantzaren lanerako ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatu zituen 2020an eta 243.117 euroren kostua eragin dute.

Udalaren lan-baldintzak arautzen dituen Akordioak aurreikusten du erretiroa aurreratzeagatik sariak ordaintzea, baina araudiak funtzionarioei sari hori ordaindu ahal izateko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa bat izatea eskatzen du. Programa hori 2022ko urtarrilean onartu zen 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Neurriak lanpostu guztiei eragiten die, eta baimena ematen du erretiroa 2 urte aurreratzeko duten langileei 17 hileko soldata ordaintzeko. Udalbatzaren erabakian adierazten denez, 2028ra arte 57 langilek izango dute sariak jasotzeko aukera, eta gehienez 3,6 milioi euro ordainduko dira.

Altak

2020ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

Kontratu kop.	
Bitarteko funtzionarioak	30
Lanpostu hutsa betetzea.....	12
Programa (3 urte arte).....	6
Zereginak metatzea (6 hilabetera arte).....	5
Titularraren aldi bateko ordezkapena (baimenak, oporrak, LEI, etab.).....	7
Aldi baterako lan kontratuko langileak	31
Lanpostu hutsa betetzeko (3) edo titularra ordezkatzeko (4) bitarteko kontratua.....	7
Obra-kontratua (4 Lanbideko enpl. plana eta 20 Inauteri eta EAEko hautesk.).....	24
GUZTIRA (50 langile)	61



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.6 ONDASUN KORRONTEEN ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioak honako xehakapen hau du:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	Konpromisoa
Pabiloia alokatzea eta beste txiki batzuk	90	-
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	563	125
Bide publikoak eta berdeguneak	174	72
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	318	49
Makineria, instalazioak, ibilgailuak eta informatikako ekipoak	71	4
Bulegoko materiala	112	-
Hornidurak	782	14
Energia elektrikoa	325	-
Gasa	95	-
Konponketa-materialak, seinaleztapena, ura eta bestelako hornidurak	362	14
Komunikazioak eta garraioak (udal-autobusa eta landa-eremurako taxiak)	265	-
Aseguru-primak	58	-
Hainbat gastu	1.075	91
Publizitatea eta propaganda	144	26
Gastu juridikoak	49	12
Jarduera soziokulturalak - Inauteriak eta beste jai-ekitaldi batzuk	281	-
Gizarte- eta kultura-jard. - kontzertuak, emanaldiak, hitzaldiak eta bestel. kultura-ekital.	409	9
Bestelako hainbat gastu	192	44
Kanpoko enpresek egindako lanak	5.036	235
Kale-garbiketa	1.135	-
Adinekoentzat etxez etxeko laguntza zerbitzua	857	-
Udal aretoen garbiketa	488	-
Gune berdeen mantentze-lanak	481	1
TAO	461	47
Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arrisku-egoeran dauden adingabeekin esku hartz. zerb.	290	-
Zerbitzu informatikoak (IZFE S.A., telelanerako softwarea, etab.)	177	42
Musika banda	104	-
Nahitaezko diru-bilketan eta trafikoko zehapenetan laguntza	101	-
Leidor zinema: filmak alokatzea eta zerbitzua kudeatzea	101	-
Beste txiki batzuk	841	145
Mugikortasunaren eta lekualdatzeen dietak	2	-
10 zinegotzien dietak, organo kolektiboen bileretara joateagatik	65	-
GUZTIRA	8.049	465



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Inbertsioak

Hona hemen egindako inbertsioen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O (*)
San Frantzisko pasealekua 39-41 urbanizatzea.....	116	-
2019ko asfaltatze kanpaina (4 lote Amaroitz, S.Esteban, Bidegorrieta eta Monteskuén)	315	-
Arrameleko biribilg., Gernikako Arbola k. urbaniz. eta bst obra txiki batz. azpiegiturretan	7	83
Zezen-plaza eraberritzea	326	-
Uzturpe pilotalekuko teilatua berritzea	146	6
Etorkinen aterp. eta Helduen Hezk. Zentr. leihoak egokitzea eta eraikin. bst. hobek. Batz.....	87	3
Makinak eta instalazioak (Urkizuko biltegia, Ailliri plazako argiak, etab.)	54	16
Bulegoko ekipoak eta informatikakoak.....	102	31
Bestelako inbertsioak.....	24	38
Azterlanak eta proiekt. (S.Estebanen HAPO aldatzea, obra-proiekt. eta software lizentziak)	60	42
GUZTIRA	1.237	219

(*) 2020ko abenduaren 31n konprometitutako kredituak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Hona hemen transferentzien eta dirulaguntza korronteen eta kapitalezkoen xehakapena:

	Euroak milakotan	
ONURADUNA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA	Gastua	Konpromisoa
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	1.708	-
Mankomunitatea – Kuota finkoa: egitura-kostuak (% 31,5) eta hondak. biltzeko kontr.(% 26,5) (*)	1.141	-
Mankomunitatea – Kuota aldakorra: ontzien, beiraren eta bestelakoen tratam.- eta sarrera-tasa (*)	399	-
Tolosako hiltegiko Mankomunitatea	10	-
Tolosaldea Garatzen S.A.- urteko jarduera-programa eta kontsumitzailearen bulegoa (*)	158	-
DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK	715	113
Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Programa autonomikoa (159 onuradun)	187	-
GLLen laguntza osagarrien udal programa (44 onuradun)	123	-
Gizarte-ongizateko elkarteak: 2019ko eta 2020ko deialdiak (32 erakunderen konpromisoa).....	55	66
Kultura-elkarteak (6) eta gazte-elkarteak (6) eta 9 partikularrak: 2020ko deialdia	-	33
Karrozen eta inauterietako konpartsen laguntzak 2020 (80 erakunde).....	38	-
Euskara ikastea (114 ikasle).....	33	-
4 ikastetxetako eskola kirola eta 11 kirol elkarteren jarduerak	107	-
Autonomoei eta enpresa txikiei COVID 19 krisiak eragindako kalteengatikoko laguntza (180 hartzaile)	114	-
Laguntzak COVID 19 krisiag. ostalaritzari (18), enpresen lehiakortas. (4) eta saltokien transmisioari (11)	54	9
Genero-berdintasuneko elkarteak (5) eta zuntza landa-eremuan instalatzea (12)	4	5
DIRULAGUNTZA IZENDUNAK	933	183
Adineko autonomoentzako alokairu lag. etxebizitza komunitarioetan (10) eta tutoretz. apart. (2).....	104	-
Gizarte-ongizateko elkarteak: Abegi-Etxerik gabeko pertsonen gaueko arreta (7 plaza)..... (*)	82	-
Gizarte-ongizateko elkarteak: Zu ta Ni eta Euskal Funtsa.....	14	5
Gizarte ongizatea: Peñascal kooperatiba – Jesusen Bihotzaren txaleta, bazterk.-arriskuko perts. (5 plaza)	-	49
Turismo Ekintzetxe Zentroa elkarteak: txotxongilo Museoa eta Abesbatzen Jaialdia (*)	106	-
Kultur elkar.: Amaro Auzoa, Hodeiertz Abesbatza, Udaberri dantza, Berazubi, Haritux eta 2 gehiago....	49	11
Tolosaldeko Komun. Taldea elk.: eskualdeko inform. interneten, euskarazko irratia eta prentsa..... (*)	71	24
Euskara elk.: Galtzaundi, 28.kanala, Gipuzkoako Bertsozale, Udal Euskaldunen Mankom. eta 7 gehiago	134	65
Tolosa CF elk.: kirol federatua eta eskola-kirola (8 modalitate), ekitaldiak eta instalaz. mantentzea (*)	100	-
Kirol elkarteak: Tolosa Arraun Kluba, Zumardi eta Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioa	45	-
Tolosa & Co elkar.: entitat. jarduera eta tokiko merkat. bonuak, 5,10 eta 15 eurokoak (90.318 euro).....	112	14
Gipuzkoako merkatarien elkarteak, lanbide-heziketako 2 zentro, Babarrun elkarteak	15	4
3 udal taldeetako zinegotzien jarduerari dirulaguntzak.....	48	-
Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkarteak, ingurumen erakundeak, Eudel eta 2 ikastetxe	41	11
AURREKO EKITALDIETAN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK	146	-
4. KAPITULUA GUZTIRA	3.502	296
Andra Mari parrokia - Konponketak (izenduna)	25	-
Saltokiei segurtasuneko inbertsioetarako laguntzen deialdia COVID 19 (47 onuradun)	31	-
7. KAPITULUA GUZTIRA	56	-

(*) Aztertzeak hautatuak

Aurreko taulako 296.369 euroren gastu-konpromisoen (D-O) saldoa 2020an garatutako jardueretarako emandako dirulaguntzei dagokie, baina ez dira gastu gisa aitortu, ez baitira likidatu kontabilitate-itxieraren data baino lehen. 6 deialdi horietan eta 29 dirulaguntza izendunetan, aurreratutako zenbatekoa 2020ko gastu gisa erregistratu zen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Mankomunitateak hiri-hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzua eskaintzen dio eskualdeari. Udalen ekarpenek osagai finko bat dute, eta kalkulatzeko da udalerri bakoitzean zaborrak biltzeko zerbitzuaren kostuaren 2020ko aurrekontuko zenbatespenekin eta birziklatzeko puntu garbien eta egiturazkoen gastuak biztanleen proportzioan banatuta. Tratamenduaren kostua, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari ordaindutakoa, udal bakoitzari jasanarazten zaio, ekoizitakoaren arabera, eta ontzi, paper, beira eta antzeko hondakin jakin batzuek sortutako benetako diru-sarreretan duen partaidetza kentzen da. Ekarpeneren osagai finkoa ez da benetako gauzatze-datuekin likidatzen; Mankomunitatearen 2020ko aurrekontu-emaiza 240.784 euro izan zen eta urte horretako abenduaren 31ko GODG 3 milioi euro.

Tolosaldea Garatzen S.A. 1994an eratu zen eta Udalaren Udalbatzak bere Estatutuak onartu zituen. Estatutu horien arabera, akziodunek ekarpenak egin behar zituzten aurrekontua orekatzeko. Udalak kontsumitzailearen bulegoan kasuan aurreikusitako defizitaren % 60 jarri zuen, eta % 32,6 gainerako gastuetan, honako xehakapen honen arabera:

	Euroak milakotan
ZERBITZUA	Gastua
Turismoa	59
Ekintzailetza eta enpresentzako prestakuntza	35
Kontsumitzailearen bulegoa	27
Enplegua: orientabidea, Lanbideko programen kudeaketa, etab.....	20
Migrazioa eta udal kudeaketan hobekuntzak	17
DIRULAGUNTZA GUZTIRA	158

Ekarpenak ez dira egikaritzako egiazko datuekin likidatzen eta 2020ko ekonomia- eta ondare-emaiza 4.161 euro izan zen eta 2020ko abenduaren 31ko Ondare garbia 1,6 milioi euro izan zen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK ETA PASIBO KORRONTEA

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n aurrekontuko zordunen xehakapena:

Euroak milakotan						
KONTZEPTUA	Aurrekontu itxiak				2020ko aurrek.	
	20/01/01	Baliog.	Kobr.	20/12/31	20/12/31	GUZTIRA
Ondasun higiezin gainerako zerga.....	419	20	120	279	127	406
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gainerako zerga	406	11	41	354	112	466
HILBI zerga	28	-	5	23	27	50
Jarduera ekonomikoen gainerako zerga	447	244	49	154	77	231
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gainerako zerga.....	50	-	29	21	155	176
Zabor-bilketa.....	114	1	25	88	76	164
Ur hornidura eta estolderia zerbitzua.....	135	-	-	135	-	135
Musika Eskola	32	-	28	4	56	60
Hirigintzako lizentziak eta lehenengo okupaziokoak	33	1	16	16	109	125
TAO.....	18	-	18	-	109	109
Jabari publikoaren okupazioa (mahaia eta aulkiak, ibiak, andam.)	202	4	120	78	62	140
Enpresa hornitzaileek jabari publikoaren okupazioa	39	-	39	-	51	51
Tolargi S.A.: sare elektrikoa kudeatzeko mandatua	267	-	267	-	267	267
Tolosa Lantzen S.A.: pertsonaleko gastuak	78	-	78	-	71	71
Isunak.....	861	113	67	681	37	718
Beste txiki batzuk	191	5	107	79	108	187
1etik 3rako kapt. guztizko partziala	3.320	399	1.009	1.912	1.444	3.356
4 eta 7 kap. Transf. eta dirulag. korronte eta kapit.....	871	14	824	33	1.263	1.296
5. kap. Ondare sarrerak	166	-	5	161	21	182
6. kap. Inbertsio errealeen besterentzea	350	69	10	271	-	271
GUZTIRA	4.707	482	1.848	2.377	2.728	5.105
Nekez egingarri diren saldoetarako zuzkidura (2.663)						
Aurrekontuko kobratzeko saldoak zuzkiduratik garbi 2.442						

Udalak 2,7 milioi euroan balioetsi du 2020ko abenduaren 31n nekez kobragarri ziren saldoentzako zuzkidura eta 2016a baino lehenagoko saldo guztiak zuzkitu ditu eta azken 5 urteetako saldoei kobrantza-ehuneko historikoak aplikatu dizkie (% 43 eta % 93 artean zuzkituak).

Aurrekontuko zordunak dira Balantzeko Aktibo Korrontearen 2019ko abenduaren 31ko saldoaren osagai nagusia eta horren 2 idazpuru nagusien xehakapena honako hau da:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	SALDOA
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.	3.006
2020ko aurrekontuko zordunak	2.728
Eragiketa korronteen aurrekontu itxietako zordunak.....	2.107
Diruzaintza eta udal erak. integrat. epe laburreko zordunak.....	661
Foru Ogasun zorduna BEZagatik	89
BEZagatik zordunak eta beste txiki batzuk.....	84
Kaudimengabez. zuzkid.....	(2.663)
Epe laburreko finantza inbertsioak	271
Kapital-eragiketetako aurrek. itxien zordunak (2010 eta 2017)	271

Pasibo korrontea eta zorpetzea

Balantzeko pasibo korrontek honako xehakapena zuen 2020ko abenduaren 31n:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	SALDOA
Epe lab. zorrak.....	1.844
Inbertsioen aurrekontuko hartzekodunak	231
Hartzekodun ez-aurrekontukoak: fidantzak.....	655
Kreditu erakundeak-maileguen 2021eko mugaegunak	858
Hartzek. eta ordain. bst kontu b.	3.431
Eragiketa korronteen aurrekontuko hartzekodunak eta kapital-dirulag.	2.100
Hartzekodun ez aurrekontukoak: Administrazio publikoak	959
Dirulaguntza-sarreraren likidazioagatik hartzekodunak GLL eta beste ...	133
Lantzen S.A. eta Erretengibel S.L.ko hartzekodunak.....	116
Hartzekodun ez aurrekontukoak: Ibarako Udala JEZ Apattaerreak.....	65
Hartzekodun ez aurrekontukoak: Sarreraren itzulketak eta beste	58

Maileguei dagokienez, hona hemen 2020an indarrean zeuden maileguen ezaugarriak:

Euroak milakotan							
ERAKUNDEA	Emandako zenbatekoa	% interesa(*)	Emakida urtea	Mugaeg. urtea	Saldoa 20.1.1	AMORTIZ. 20.12.31	Saldoa 20.12.31
Kutxabank	7.146	euribor+0,15 (*)	2005	2025	2.507	418	2.089
Kutxabank	6.900	euribor+0,15 (*)	2006	2025	1.509	263	1.246
Nafarroako Rural Kutxa.....	800	3,72 (*)	2013	2023	455	115	340
Ekonomia eta Lehiakort. Ministerioa.....	1.900	-	2008	2023	633	158	475
GUZTIRA					5.104	954	4.150

(*) 2020an ez da interesik ordaindu Euribor ezargarriaren balio negatiboengatik eta EAren dirulaguntzagatik.

Balantzeko Epe luzeko zorrak idazpuruak 2020ko abenduaren 31n 3,2 milioi euroren saldoa du eta maileguen 2022tik 2025era bitarteko mugaegunak jasotzen ditu.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.9 AKTIBO EZ-KORRONTEA

Hona hemen aktibo ez-korrontearen osaera eta eragiketak 2020an, xehatuta:

Euroak milakotan						
KONTUA	Saldoa 19.12.31	Inberts. 2020	Inte- grazioa	Eskualdak.	Zuzkidura eta beste	Saldoa 20.12.31
Ibilgetu ukiezina	2.943	59	4	-	(8)	2.998
Ibilgetu materiala.....	123.832	1.178	37.480	-	(1)	162.489
Lursailak	29.391	-	-	-	-	29.391
Eraikuntzak.....	61.882	559	35.843	336	-	98.620
Azpiegiturak	4.611	439	-	(13)	-	5.037
Beste ibilgetu material bat	27.417	180	1.637	19	(1)	29.252
Abian dagoen ibilgetu materiala	531	-	-	(342)	-	189
Ibilgetuko inbertsioak.....	-	-	5.075	-	-	5.075
Lurraren Ondare Publikoa	1.039	-	-	-	-	1.039
Taldeko erakunde inbertsio finantzarioak	24.744	-	(24.323)	-	-	421
Epe luzeko bestelako inbertsio finantzarioak	1.361	-	-	-	-	1.361
IBILGETUAREN KOSTUAREN GUZTIZKO PARTZIALA	153.919	1.237	18.236	-	(9)	173.383
Ibilgetu ukiezinen amortizazio pilatua	(1.606)	-	(3)	-	(49)	(1.658)
Ibilgetu material eta inbertsioen amortizazio pilatua ...	(48.414)	-	(13.978)	-	(1.799)	(64.191)
Finantza inbertsioen balio-galera	(1.743)	-	1.506	-	22	(215)
AKTIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	102.156	1.237	5.761	-	(1.835)	107.319

Udalak elementuen araberako inbentario bat dauka, 2019ko abenduaren 31n eguneratua; inbentario hori 1997an egindako balorazio bat abiaburu hartuta egin zen eta gerora, inbertsioak gehitu zitzaizkion.

Ibilgetuan ez dira islatzen 2016a baino lehenagoko azpiegituretako inbertsioak. Ekitaldi horretan kontabilitate-tratamenduan aldaketa bat gertatu zen eta aldaketa horrek aktiboan sartzea eskatzen zuen. Inbentarioan 2016a baino lehenagoko inbertsioak zehazten dira, eta 331 elementu daude urbanizazioak, argiteria publikoa eta haur-parkeak epigrafeetan; horiek guztira 31,5 milioi euroren kostua dute, amortizazioen banakako kalkulurik egin gabe.

Udalak 50 urterako aparkaleku bat, gerontologia-zentro bat, eguneko zentro bat eta adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuak eraikitzeke eta ustiatzeko emakida bat esleitu zuen 2007an, eta 13,9 milioi euroko kostua izango zuela kalkulatu zen, lizitaziorako erabilitako eraikuntza-aurreproiektuaren arabera. Aktibo hori ez da Ibilgetu materialean barne hartu, ezta horren kontrakontua Pasibo ez-korronteko kontu batean ere, emakidaren 50 urteetan sortuko diren diru-sarrera aurreratu gisa.

Udal erakunde autonomoak eta sozietate publikoak

2020ko irailaren 24an, Udaltzako Erakunde Autonomoa desegitea erabaki zuen eta Udalak lagatako ondasunak berreskuratu eta desegindako erakundearen eskubideak eta betebeharrak udal kontuetan atxiki zituen. Desegitearen arrazoia da GFAk bere gain hartu zuela erakunde autonomoak emandako zerbitzua, eta 2019ko urtarrilean onartu zuela Udaltzako prozesua arautzeko hitzarmen bat. Hitzarmenak instalazioak Aldundiari lagatzea



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

aurreikusten zuen, txosten hau idatzi dugun datan formalizatu gabea. Laga beharreko instalazioen 2020ko abenduaren 31ko kostu garbia 5,6 milioi eurorena zen, eta 1,2 milioi euroren saldoa ere kitatu beharko da, emaitzari egozteko dauden dirulaguntzengatik.

Aurreko Udaltzatzen eta 2020ko azaroaren 26koan, Udalak Tolosa Lantzen S.A.ren eta Erretengibel S.A.ren aktibo eta pasiboen lagapen globala onartu zuen, 2020ko abenduan eta 2021eko otsailean formalizatuak, hurrenez hurren. 2018an, Tolosa Lotzen S.A. desagitea erabaki zen. 2020an erregistratu zen, 2020an onartutakoekin batera, eta honako alta eta baja hauek (inbertsio finantzarioak) eragin zituen ibilgetuan:

	Euroak milakotan				
	IURREAMENDI EGOITZA	ERRE- TEN- GIBEL	TOLOSA LANTZEN	TOLOSA LOTZEN	GUZTIRA
Ibilgetu ukiezina.....	-	4	-	-	4
Ibilgetu materiala.....	8.798	310	27.245	1.127	37.480
Ibilgetuko inbertsioak.....	-	5.075	-	-	5.075
IBILGETUKO KOSTU AMORTIZAGARRIA	8.798	5.389	(*) 27.245	1.127	42.559
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio pilatua.....	-	(3)	-	-	(3)
Ibilgetu material eta inbertsioen amortizazio pilatua.....	(4.302)	(359)	(9.317)	-	(13.978)
AMORTIZAZIOAREN KOSTU GARBIA	4.496	5.027	17.928	1.127	28.578
Taldeko erak. finantza inberts. baja.....	(5.719)	(3.939)	(12.586)	(2.079)	(24.323)
Finantza inbertsioen balio-galeragatik baja.....	570	-	-	936	1.506
IBILGETUA GUZTIRA	(653)	1.088	5.342	(16)	5.761

(*) 2011-2020 aldiko inbertsioengatik jasandako BEZaren erregularizazioa barne hartzen du, 293.650 euro.

Udalari gehitu zitzaizkion, halaber, emaitzari egozteko dauden kapital-dirulaguntzak, kobratu eta ordaindu beharreko kontuak, diruzaintza eta 4 erakunde 2020ko gastu eta sarrerak:

	Euroak milakotan				
	IURREAMENDI EGOITZA	ERRE- TEN- GIBEL	TOLOSA LANTZEN	TOLOSA LOTZEN	GUZTIRA
Kobratzeko saldoak eta izakinak.....	-	218	469	-	687
Diruzaintza.....	104	4	189	25	322
ALTAK-AKTIBO KORRONTEA	104	222	658	25	1.009
Kapital diru-laguntzak, emaitzetara egozteko zain.....(*)	-	108	5.577	-	5.685
ALTAK-ONDARE GARBIA	-	108	5.577	-	5.685
Ordaintzeko saldoak.....	-	11	110	-	121
ALTAK-PASIBO KORRONTEA	-	11	110	-	121
Diru-sarrerak.....(**)	-	115	538	5	658
Gastuak.....(**)	(112)	(108)	(406)	(6)	(632)
Kapital-dirulaguntzak emaitzetara egozteko.....	-	66	303	-	369
Amortizaziorako zuzkidura.....	-	(33)	(629)	-	(662)
ERAKUNDE INTEGRATUEN 2020KO SARRERAK ETA GASTUAK	(112)	40	(194)	(1)	(267)

(*) Udalaren beraren kapital-dirulaguntzak integrazioan ezabatzen dira.

(**) Ondare-kontabilitatearen sarrerak eta gastuak soilik gehitzen dira, aurrekontu-kontabilitatea eragin gabe.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Zenbatekoa
lurreamendi Egoitza Erakunde Autonomoa.....	104
Erretengibel S.A.: diruzaintza eta pasibo korrontea.....	(6)
Tolosa Lantzen S.A.: Aktibo eta pasibo korrontea	548
Tolosa Lantzen S.A.: azken 10 urtetako inbertsioen BEZa erregularizatzea	(294)
Tolosa Lotzen S.A.: diruzaintza	25
GUZTIRA	377

Integrazioaren idatzoharren multzoak ondare-kontabilitatean 1 milioi euroren emaitza positiboa sortzen du, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuko «Aktibo eta pasibo finantzarioen balio-narriadura, bajak eta besterentzeak» epigrafeko sarrera gisa erregistratua.

A.10 UDAL SOZIETATEAK

Diru-sarrerak

Hona hemen udal sozietateen sarrera nagusien xehakapena:

	Euroak milakotan			
KONTZEPTUA	TOLARGI	ERRETENGIBEL (*)	LANTZEN (*)	GASA
Elektrizitatea eta gasa banatzeagatiko ordainsaria.....	1.293	-	-	780
Kontagailuak alokatzea eta beste txiki batzuk.....	102	-	-	103
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBAT. GARBIA	1.395	-	-	883
Kirol-instalazioen emakida-kanona.....	-	-	455	-
Kiroldegiko tabernaren emakida eta gastuak jasanaraztea.....	-	-	81	-
Rimbonbin kaleko lokalaren eta etxebizitzaren alokairua.....	-	38	-	-
Udala-ekarpen orokorra.....	-	18	-	-
Udala-hirugarrenentzako dirulaguntzetarako ekarpena.....	-	59	-	-
USTIAPENEKO BESTELAKO SARRERAK	-	115	536	-

(*) Desegindako sozietateak: 2020an beren aktiboak eta pasiboak Udalari lagatzea adostu zuten.

Kirolzer S.L. sozietateak udal kirol instalazioak kudeatzen ditu (Usabal, Berazubi, Beotibar eta Uzturpe) 2021eko abendura arte indarrean zegoen kontratu baten bidez, eta kontratu horrek haren ordainsaria ezartzen du erabiltzaileei, abonuei eta ikastaroei jasanarazitako prezioekin, batez ere, 1,6 milioi euro 2020an. Prezio horiek kontratua esleitzean ezarri ziren eta udalaren baimenarekin aldatzen dira. Enpresa esleipendunak kanon finko bat ordaintzen dio Udalari, 294.257 euro 2020an, eta beste kanon aldakor bat irabaziak sortzen badira. 2020an, 2019ari zegokion kanona likidatu zen, 160.956 euro. 2020an galerak izan ziren eta, beraz, ez zen diru-sarrera hori sortu.

Langileria

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n pertsonaleko gastuak eta plantilla:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan eta kopurua

	TOLARGI		LANTZEN (*)		GASA	
	Gastua	Plantilla	Gastua	Plantilla	Gastua	Plantilla
Funtzionarioak.....	132	2	-	-	-	-
Lan kontratu finkoko langileak.....	144	3	50	1	51	1
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	60	2	-	-	-	-
Erretiro aurreratuagatik sariak (2 langile).....	124	-	-	-	-	-
Guztizko partziala.....	460		50		51	
Gizarte Segurantzak.....	85		16		16	
Elkarkidetzak eta beste gizarte gastu batzuk.....	17		2		2	
GUZTIRA	562	7	68	1	69	1

(*) Desegindako sozietatea: 2020ko irailean bere aktiboak eta pasiboak Udalari lagatzea adostu zuen.

Tolargi S.L.ko Administrazio Kontseiluak Udalaren akordio arautzailea aplikatzea onartu zuen, eta akordio horrek erretiroa aurreratzen duten langileei sari bat ordaintzea aurreikusten du. 2020an bi langilek 2 urte aurreratu zuten erretiroa eta 18 hilabeteko ordainsaria dagokie.

Ustiapeneko beste gastu batzuk

Euroak milakotan

KONZEPtua	TOLARGI	ERRETENGIBEL (*)	LANTZEN (*)	GASA
Udalaren mandatua: emandako zerbitzuak.....	542	-	-	-
Banaketa-sarea kudeatzen laguntzea (Nortegas S.A.).....	-	-	-	303
Lagatako Udaleko langileak.....	-	-	215	-
Lagatako emakidadunaren langileak.....	-	-	35	-
Emakidadunari jasanarazitako uraren eta aseguruaren gastuak.....	-	-	52	-
Ondasun erosk. eta zerb.	211	28	36	98
Hirugarrenentzako dirulaguntzak.....	-	77	-	-
USTIAPENeko BEste GASTU BATZUK	753	105	338	401

(*) Desegindako sozietateak: 2020an beren aktiboak eta pasiboak Udalari lagatzea adostu zuten.

2016an Udalak Tolargi S.L.ri agindu zion elektrizitatea banatzeko zerbitzua emateko, eta ezarri zuen Udalak laguntza emango ziola sozietateari langileen kudeaketan, eta 2 lokal eta lursail bat utziko zizkiola. Mandatuaren arabera, Udalari aurreko prestazioengatik eta jardueraren lagapenagatik urtean 534.083 euroren zenbateko finkoa ordainduko zitzaion, aurreko urteko mozkinen % 30az gain.

Aktibo ez-korrontea

Hona hemen udal sozietateen ibilgetu materialeko eta higiezinaren inbertsioetako osagai nagusien xehakapena:

Euroak milakotan

KONZEPtua	TOLARGI	ERRETENGIBEL (*)	LANTZEN (*)	GASA
Elektrizitatea eta gasa banatzeko sarea.....	1.526	-	-	490



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Eraikinak (sozietateen egoitza).....	-	167	-	-
Usabalgo pabiloi ingurua urbanizatzea.....	-	-	936	-
Kontagailuak, altzariak, ibilgailuak eta beste txiki batzuk	298	4	-	-
IBILGETU MATERIALA	1.824	171	936	490
Usabalgo pabiloia eta Berazubiko futbol zelaia.....	-	-	16.514	-
Instalazioak, makineria, lanabesak eta beste ibilgetu bat.....	-	-	184	-
Lokalak (2) eta pisuak (9).....	-	1.384	-	-
Enperadore eta Andra Mari kaleetako orubeak.....	-	3.470	-	-
IBILGETUKO INBERTSIOAK	-	4.854 (**)	16.698	-

(*) Desegindako sozietateak: 2020an beren aktiboak eta pasiboak Udalari lagatzea adostu zuten.

(**) Aktibo korronteko izakinen idazpuruan beste lokal bat eta 2 etxebizitza jaso dira, 214.316 euroren balioa dutenak.

A.11 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

ESPEDIENTE AZTERTUAK						Euroak milakotan	
KONTRATUA	ESLEIPENA				Gastua 2020	AKATSAK	
	Data	Prozed.	Zenbat. (a)	Subrogazioa		A	B
1. Etxez etxeko laguntza (2 urte).....	mar-2018	Irekia	(b) 1.674	51	837	A1	
Luzapena 2021era arte.....	mai-2020		837				
2. Musika-bandaren zerbitzua (25 urte).....	mai-2019	PGN	3.675	-	104		B
Aldaketa: bertan behera COVID 19	-		(43)				
3. Frontoiko ostalaritza: obra eta emakida (30 urte)	eka-2019	Irekia	(c) 1.008	-	23	A1	B
Aldaketa: bertan behera COVID 19 kanona	aza-2020		(10)				
4. Kale garbiketa (4 urte)	aza-2020	Irekia	6.119	25	24		
5. Laskoain kaleko instalazioak berritzea.....	aza-2020	Irekia	546	-	-		B
GUZTIRA			13.806	76	988		
PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua							
(a) BEZa sartuta esleitutako zenbatekoak							
(b) Aleko prezioak: esleipen-zenbatekoa, 2020ko egiazko egikaritza datuekin balioetsia.							
(c) 30 urtez ingresatu beharreko kanonari dagokion zenbatekoa							

Euroak milakotan			
AKATSAK		ESLEIPENAREN	ZENBATEKOA
		ESPEDIENTE KOP.	
A ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA			
1. Eskaintza ekonomikoen balorazioa: Formula proportzional sinplea.....		2	2.682
B BERARIAZKO AKATSA			

Beste erosketa batzuk

Aurreko kontratuez gain, 2020an egindako erosketen kontratazio-prozedura identifikatu da, eta indarraldia amaitu arren oraindik ere gauzatzen ari ziren kontratuak detektatu dira:

Euroak milakotan			
KONTZEPTUA	Indarraldiaren amaiera	Exekuzio- amaiera	Gastua
			2020



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bide publikoetan aparkalekua arautzea	eka-2019	abu-2021	468
Hiri garraio publikoa	urt-2020	ots-2021 (*)	158
Dirubilketan laguntza (isunak eta betearazpen-bidea	urr-2019	urt-2021	100
GUZTIRA			726

(*) Egikaritzea 2020ko otsailaz geroztik.

Halaber, erosketak txiki modura izapidetutako erosketak ere badaude, prozedura ireki sinplifikatu arrunt edo laburtu bidez egin beharrean:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Gastua
Aseguru polizak (2 hirugarren).....	115
Zine-pelikulak hornitzea	55
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU ARRUNTA GUZTIRA	170

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Gastua
Telefono bidezko komunikazioak.....	38
Argiztatze- eta megafonia-lanak.....	25
Hurtzaindegia energia elektrikoaren hornidura	25
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTUA GUZTIRA (SPKLren 159.6 art.)	88



ALEGAZIOAK

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Udal-musika banda

Tolosak aspalditik du udal musika banda bat, Mikel Telleriak Tolosako Entziklopedian idatzi zuenez. Bere lehen emanaldietako bat 1828ko ekainaren 2an izan zen, Fernando VII.a eta bere emazte Maria Josefa Amalia Tolosatik igaro zirenean.

Música Marcial de Aficionados sortu zenetik, Tolosako Banda sendotzen joan zen, bai taldekide kopuruari dagokionez, bai instrumentu berrien erosketari dagokionez. Beren burua finantzatzeko, festetan eta beste ekitaldi batzuetan egindako jarduketengatik ordaintzen zieten dirua zuten. Horrela, 1830eko San Juanen, Udalak 252 erreal artile ordaindu zituen bere zerbitzuengatik. Hala ere, Mikel Telleriak bere argitalpenean azaltzen duenez, ez zen nahikoa, eta 3.836 erreal bildu zituen harpidetza herrikoi bat ireki zuten, Bandak Parisko Maison Gaztanbide enpresa ospetsuan hamabi instrumentu eder erosteko aukera izan zezan. 1834an harpidetza berri batek 3.005 errealeko saldoa eman zuen. Gerra zibilean, Udal Musika Bandak ia 1939ko udaberrira arte utzi zion emanaldiak egiteari, berriro ere emanaldiak hasi ziren arte. Hala ere, eta ezagutzen ez diren arazoengatik, Banda hurrengo urtean desegin zen. 1944an berrantolatu zen sakon; 1995etik, organikoki Udalaren mende egoteari utzi zion, eta elkarte independente gisa eratu zen. Urte horretan bertan sinatu zen Tolosako Musika Bandaren (TMB) eta Udalaren arteko harremanak arautu dituen hitzarmena.

Egiaztatuta geratu denez, duela ia 200 urtetik hona, musika-banda Tolosako Udalaren mende egon da funtzionalki, eta horren programazioa Udaleko Kultura Sailak finkatu eta antolatu du. Era berean, aipatu behar da musika bandaren zuzendari postua udaleko LPZn dagoela eta udal musika eskolari atxikita dagoela.

Aurrekari horiek kontuan hartuta, eta aspaldidanik esku-hartzea eskatzen zuen gai bati irtenbidea emateko asmoz, 2018an, udalbatzak musika-bandaren udal-zerbitzua sortzea onartu zuen. Horrela, antzinatek eta 1995era arte egon zen udal zerbitzua berreskuratzen da.

Udal-zerbitzu hori berriro sortzeko, espezialista baten laguntza kontratatu zen. Espezialista horrek laguntza tekniko-juridikoa eman zuen, eta, azkenean, txosten bat egin zuen, udal-zerbitzu hori sortzeko arrazoiak eta esleitzeko publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bat erabiltzea justifikatzen zuena. Lehen urrats hori eman ondoren, lizitazio bat egin zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitakoaren arabera, eta, horretarako, 168. artikuluan aurreikusitako publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili zen.

Hona hemen prozedura-mota hori aukeratzeko arrazoiak:

- Iruñeko Udal Bandaren kontratuan, Iruñeko Udalak eta “La Pamplonesa” Musika Bandak sinatutako musikari-bandaren zerbitzu artistikoen kontratu gisa eratu zen, 2016tik 2036ra bitarteko iraupenarekin, hau da, 20 urteko iraupenarekin.

- Zerbitzu-kontratuaren xedea ez da herritarrei zuzenean ematen zaizkien zerbitzuak bakarrik; izan ere, zerbitzu horien xedean sartzen dira administrazioari zuzenean ematen zaizkion zerbitzuak ere, nahiz eta gero zeharka herritarren aldekoa izan.
- Zuzendariaren zerrenda, TMB ikuskatu eta gainbegiratzen duen enplegatu publikoa den aldetik, kalitate-estandarra bermatzeko, eta, aldi berean, TMBri Udal Musika Eskolatik soilik datozen izangai berriak ematen dizkio, eta hori, bestalde, hautagaien jatorrizko leku bakartzat ezartzen da.
- Tolosa Musika Bandaren eta udal-izaerako Tolosako Musika Eskolaren arteko lotura. Udalak kudeatzen du zuzenean, eta harreman ia sinbiotiko bat sortzen duen osagarritasun-adibide bat da. Horrek erakusten du ezin dela lehiarik egon arrazoi teknikoengatik, TMB Tolosako Musika Eskolatik etorritako pertsonak osatzen duten Musika Banda gisa eratu baita ia osorik.
- Tolosako bandaren artxiboan eskuz idatzitako 243 partitura daude, eta gainerakoak, 2683, bandak erabili dituen lan inprimatuak dira. Aipatzekoak dira Mocoroa eta Beobide erakundearen zuzendari ohien obrak, Rufo Montillak obra batzuei egindako konponketak, baita TMBko zenbait kiderenak ere, hala nola Juan Comenero, Garate eta abar. Eskuz idatzitako partiturak musikagile berak konposatzen ditu gehienbat, eta eskuz idatzitako partikillak, berriz, erakundearen beraren kopiazaileek. Artxibo honetan egiten diren ekarpen berriak inprimatutako partiturak izaten dira, normalean erositakoak.

Ildo beretik, sensu contrario, jo du Valentziako Generalitateko Administrazio Kontratazioako Batzorde Gorenaren 1/2020 Txostenak, honako hau dioenean: “La posibilidad de acogerse a este precepto en un supuesto como el planteado en la consulta del Ayuntamiento exigiría que las actuaciones efectuadas por la banda de música tengan ese carácter de interpretaciones artísticas únicas o que la banda tuviera derechos exclusivos sobre su realización, bien por tratarse de creaciones artísticas propias o bien por haber adquirido esos derechos en virtud de un negocio jurídico celebrado previamente.”.

Guri dagokigun kasuan, justifikatua baino justifikatuagoa dago hori, hau da, TMB elkarteak Tolosako berezko doinuen 240 partitura baino gehiagoren eskubide eskusiboak zituen, eta horiek hiribildu honetan dute jatorria, eta ezin zituzten hirugarrenek interpretatu haren baimenik gabe. Beraz, SPKLren 168. artikulua eskatzen duen funtsezko betekizuna betetzen da: “2.º Cuando las obras, los suministros o los servicios solo puedan ser encomendados a un empresario determinado, por alguna de las siguientes razones: que el contrato tenga por objeto la creación o adquisición de una obra de arte o representación artística única no integrante del Patrimonio Histórico Español; que no exista competencia por razones técnicas; o que proceda la protección de derechos exclusivos, incluidos los derechos de propiedad intelectual e industrial.” Hori horrela izanik, eta udal musika-bandaren zerbitzua sortu denez, udal honen irizpidearen arabera justifikatuta dago prozedura negoziatu hori publizitaterik gabe erabiltzea.

2.- Hiribusa

HKEEren txostenean adierazten da hiri-autobusaren kontratua 2020. urterako amaitu zela eta kontratu berriaren lizitazioa ez zela abian jarri. Izan ere, kontratua gauzatzeko epea 2019ko uztailaren 15ean amaitzen zen, eta kontratu berriaren lizitazioa abian jartzeko izapideak hasi ondoren, udaleko zerbitzu teknikoek ezinezkoa ikusi zuten hura martxan jartzea, honako arrazoi hauengatik:

- Udala Mugikortasun Plana lantzen ari zen Tolosan. Plan honek egungo trafiko eskema iraultzea ekarriko zuen eta horrek, eragin handia izango zuen Hiri Garraio Zerbitzuan. Diagnostikoan agertu ziren jada zerbitzu horrek zituen gabeziak eta berau hobetzeko aukerak eta proposamenak. Momentu hartan Mugikortasun Plana idazketa prozesuan zegoen. Diagnosia egina zegoen eta aholkularitzak ekintza planaren zirriborroa bidali zuen, baina zirriborro hura teknikarien eta politikarien kontrastea eta balidazioaren zain zegoen. Aholkularitzak Mugikortasun Planaren Diagnosia 2019ko maiatzaren 20an helarazi zuen Udalera eta Ekintza Planaren Zirriborroa 2019ko abuztuaren 2an. Bestalde, kontratazio berria egoki prestatzeko bi adituen azterketa kontratatu zen.
- Bestalde, zerbitzuaren azterketa ekonomikoa ISVIAL, S.L. aholkularitza enpresari enkargatu zitzaion. Azterketa hori 2019ko apirilaren 8an hasi zen, Mugikortasun Planaren ezartzeak trafikoaren ordenazioa aldatzea eragingo baitzuen eta horrek hiribusaren distantziak eta denborak aldatzea eragingo baitzuen ere. Horiek horrela, zerbitzuaren baldintza pleguak aurreikusi behar zituzten sortu zitezkeen aldaketak aurreikusteko eta bestalde esleipendunaren retribuzioa, zerbitzuak egiten dituen distantzien eta ordu kopuruen arabera zehaztasunez kalkulatzeko formulak proposatzeko. Beste alde batetik, azken urteetan garraio zerbitzuak istilutsuak izan ziren bai arlo laboralean bai konpetentziaren alorrean. Hori dela eta, beharrezkoa izan zen zerbitzuak zituen kostu errealean azterketa sakon, zehatz eta independente bat egitea. Zerbitzuaren azterketa ekonomikoa 2019ko ekainean helarazi ziguten.
- Zerbitzuaren azterketa teknikoa GEA 21 aholkularitza enpresari enkargatu zitzaion. Azterketa horren kontratazioa 2019ko apirilaren 8an egin zen. Mugikortasun planak Tolosako Hiri garraio zerbitzua aztertu zuen eta gabezi eta hutsune batzuk antzeman zituen eta autobusaren ibilbide berria proposatu zuen, mugikortasun planak helburu bezala proposatzen zuen trafiko eskemaren baitan. Trafiko eskema hura gauzatu arte gutxienez 10 urteko epea igaroko zela aurreikusten zenez, GEA 21 enpresari zerbitzu horri buruzko azterketa espezifiko eskatu zitzaion. Lan horren helburua ondokoa zen: Mugikortasun planak proposatzen zuen trafiko eskema berria gauzatu bitartean, autobusaren ibilbide berriak proposatzea, eskaria kontutan hartuz eta alternatiba desberdinak aztertuz. Azterketa hura beharrezkoa zen, epe motzean zerbitzuak jasan zitzakeen ibilbidearen aldaketak plegu teknikoetan aurreikusi ahal izateko. Aholkularitzak lan horren zirriborroa 2019ko irailaren 17an helarazi zigun, baina gaiaren garrantzia ikusirik, teknikariak azterketa, inkestekin osatzea eskatu zion. Inkestak 2019ko urriaren 7-11 bitarte burutu ziren.
- GGLAn integratzeko Udalaren interesa. MUGI txartela RENFE-ko zerbitzuetara zabaltzeak asko indartu eta zabaltu zuen txartel horren erabilpena. Gero eta gehiago



ziren Hiri Garraio zerbitzu propioa zuten eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan integratu ziren udalerriak. Hori zela eta Tolosako udalak interesekoa ikusi zuen Tolosa ere Agintaritzan sartzea. Data horietan, GGLA-ko ordezkariekin, Tolosaren integrazioarako lehen pausuak ematen ari ziren. Onartu behar zen hitzarmena udalbatzak onartu behar zuen eta prozesu horrek luzerako eman zuen. Tolosako Bidaia- Hiri- garraio zerbitzuaren pleguak egiteko ezinbestekoa zen zerbitzuak MUGI txartelaren tarifikazioa berea egingo zuen ala ez argitzea eta autobusak duen zerbitzuaren jarraipenerako sistemak GGLA-ko eskakizunetara egokitu behar zen ala ez zehaztea.

- 4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. Lege honek bere 22. artikuluan honela dio: “22. artikulua.– Bidaia-riak errepidez eramateko zerbitzu publikorako ibilgailuak. 1.– Bidaia-riak errepidez eramateko zerbitzu publikoa ordezkoko erregaiak erabiltzen dituzten ibil-gailuen bidez eskaini behar da, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan xedatutakoaren arabera. 2.– 2020tik aurrera, berritzen den ibilgailu-flota guztiak (% 100) ordezkoko erregaiak erabili behar dituela hartu behar da kontuan administrazio-ko baimenak edo emakidak eramateko eta egiteko edo, hala badagokio, baimen horiek berritzeko onartzen diren baldintza-agiri edo tresnetan.”.

Lege horren onarpena erabat baldintzatu zuen kontratazio hau. Lege horrek derrigortzen baitzuen, 2020tik aurrera, berritzen zen ibilgailu-flota guztiak (%100) ordezkoko erregaiak erabili behar zituela. 2019Ko maiatzaren 6an EVEra idatzizko kontsulta egin zen zehazki ibilgailu hibrido ez entxufableak ordezkoko erregai gisa erabiltzen dituzten ibilgailuen artean sailkatu ahal ziren edo ez jakiteko. EVEko teknikariaren erantzuna hau izan zen: “Entxufableak ez diren hibridoak ezin dira kontsideratu ordezkoko erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuak”. Hala ere Industria sailera kontsulta bideratzeko aholkatu zigun, sail horrek hartu baitzuen aipatutako lege betearazteko eskumena. 2019Ko maiatzaren 7an EVEko teknikariak aipatutako helbidera bidali zen kontsulta. 2019Ko urriaren 9an jaso zen erantzuna eta horrela zioen: “Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko urriaren 22ko 2014/94/UE Zuzentarauaren arabera, ibilgailu hibrido ez-entxufagarriak (HEV) ez dira ibilgailu elektrikotzat hartzen beraz, ibilgailu alternatibo moduan onartutakoak, eta gaur egun ditugun horniketa baliabideen arabera, elektriko puruak, elektriko entxufagarriak eta gasa erretzen dituztenak egongo lirake.”. Ondorioz, 4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, bete nahi bazen, eta bete behar gainbera, derrigorrez elektriko puruak, elektriko entxufagarriak eta gasa erretzen zuten autobusak erabili beharko ziren. Honek erabat baldintzatu zuen prestatatzen ari zen kontratazio mota.

- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak bere 26. artikuluan, hau aipatzen du udalerrien eskumenei buruz: “1.- Udalerriek beren kasa edo elkaturik zerbitzu hauek bete beharko dituzte, nolanahi ere: a) Udalerri guztietan: Herriko argiteria, hilerria, hondakin-bilketa, kale- bideen garbiketa, edateko uraren etxeetako hornidura, estolderia, biztanleguneetarako irispideak, herri barruko bideen zoladura eta janarien eta edarien kontrola. b) 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoz gain: Herriko parkea, liburutegi publikoa, merkatua eta hondakinen tratamendua. c) 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan,



lehengoez gain: Babes zibila, gizarte zerbitzuak betetzea, suteei aurrea hartzea eta suteak itzaltzea, eta erabilpen publikoko kirol-instalazioak. d) 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoez gain: Bidaia-irteerentzako hiriko garraioa eta ingurumenaren babesa.”.

Halaber, 27/2013 Legeak, abenduaren 27koak, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoak, bere 1.23. artikuluan, aurretik aipatutako 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren 86. artikulua aldatu zuen: “Toki-entitateen alde gordeko dira funtsezko jardura edo zerbitzu hauek: uraren arazketa eta etxeko hornidura; hondakinen bilketa, tratamendua eta aprobetxamendua; eta bidaia-irteerentzako garraio publikoa, aplikagarria den sektoreko legedian aurreikusitakoari jarraiki. Estatuak eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, beste jardura eta zerbitzu batzuk hartu ahal izango dituzte legearen bidez.”.

Bestalde 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak bere 17.1 artikuluan, Udalerrien eskumen propioei buruz hau esaten du: “Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: 18) bidaia-irteerentzako hiri barruko garraio publikoa –garraio bidea edozein dela– antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerriaren barruan egiten bada osorik.”.

Bide berdinean, Europar Batasuneko Amsterdam-eko Itunak, bere 16. artikuluan hau zehazten du: “...a la vista del lugar que los servicios de interés económico general ocupan entre los valores comunes de la Unión, así como de su papel en la promoción de la cohesión social y territorial, la Comunidad y los Estados miembros, con arreglo a sus competencias respectivas y en el ámbito de aplicación del presente Tratado, velarán por que dichos servicios actúen con arreglo a principios y condiciones que les permitan cumplir su cometido.”.

Amaitzeko, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak, 36. artikuluan, esaten du ekonomia-interes orokorreko zerbitzuei buruz: “Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du ekonomia-interes orokorra duten zerbitzuei baliatu ahal izatea, estatu bakoitzeko lege eta jokaerak ezarritako moduan, Tratatuarekin bat etorritik, Batasuneko gizartearen eta lurraldearen kohesioa sustatzeko.”.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udalak Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen arabera, bidaia-irteerentzako hiriko garraioa ematea behartuta ez dago, baina aspaldidanik Udalak zerbitzu hau ematea erabaki zuen, ezinbesteko zerbitzua dela onartzen baitu, mugikortasuna eta irisgarritasuna oinarritzko eskubidea baita, Konstituzioak onarturiko berdintasun eskubidean oinarrituta. Aipatu den bezala, Europar Batasunaren oinarritzko legeek, ekonomia-interes orokorreko zerbitzuek betetzen duten tokia azpimarratzen dituzte eta horien artean, bidaia-irteerentzako garraioa aipatzen da. Tolosaren kasuan, lege ez-beharrezkoa den hiribus zerbitzua ez prestatzeak, herritarrentzako beharrezkoak diren beste zerbitzuetan gabezi handiak sortuko lituzke; gainera, gabezi honek kolektibo kalteberei eta premia-zerbitzuko beharrak eta ahultasunak dituzten taldeei eragin handiagoa ekarriko lieke, hala nola ezinduek, helduek, Asunción Klinikara doazanak, Iurreamendi



Egoitzako egoiliarak, kanposantura bisitan doazenak eta hirigunetik urrun geratzen diren auzoetako biztanleak. Azken kasu hau oso esanguratsua da, Tolosako udalerrian bizi diren 19500 biztanleetatik, 9800 hirigunetik aldendutako auzoetan (Amaroz, Usabal, Arramele, etab) bizi baitira, hau da, Tolosako biztanleen erdia auzoetan bizi da eta horietara joan ahal izateko kasu askotan garraio publikoa behar du. Horretaz gain, zerbitzuarekin ez jarraitzeak, aipatutako mugikortasun plana bertan behera utziko luke, garraio publikoan oinarritzen den plana baita. Eta horri, iraultza ekarri zuen beste faktore garrantzitsu bat gehitu behar zaio, 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. Horrek, ingurumen eta landa eremuko teknikariak azaldu bezala, erabat aldatu zuen momenturarte ezagutu zen hiri-garraioen eskema, bidaiariak errepidez eramateko zerbitzu publikoa ordezkotako erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuen bidez eskaini behar baita. Gainera, 2020tik aurrera, berritzen diren ibilgailu-flota guztiak (% 100) ordezkotako erregaiak erabili behar dituzte; horrek erabat baldintzatu zuen Tolosako Udalak aurrera eraman nahi izan zuen lizitazioa, eta administrazio arduratsu baten betebeharra da bai gastuan efizientzia mantentzea, baita herritarren premiazko eskubideak bermatzea. Horrela, gaitz txikiago bat adierazten zuen alternatiba aukeratu zen, bi bakarrik baitziren bideak: edo kontratu berria bere epean lizitatu eta beste guztia alde batera utzi, edo inguruabarrak kontuan hartuz zentzuzko lizitazio bat prestatu. Udalak, bigarren bide hau hartu zuen.

3.- Diru-bilketaren arloko laguntza eta kudeaketa

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean adierazten denez, diru-bilketan laguntzeko kontratua 2019an amaitu zen, eta ez zen aurretik lizitazio berrirako deialdirik egin.

Hain zuzen ere, kontratua gauzatzeko epea 2019ko urriaren 21ean amaitu zen. Kontratu berria lizitatzeko izapideak 2020ko urtarrilean hasi ziren, eta, Covid-19ak sortutako osasun-krisiaren ondorioz, kontratuaren esleipena ezin izan zen egin 2021eko urtarrilaren 8ra arte, 2021/9 Alkatetzaren Dekretuaren bidez. Gaur egun, kontratua indarrean dago.

4.- Kontratu txikiak. Aseguruak

Azken urteotan udalak ahalegin handia egin du kontratu txikien bidez esleitzen ziren prestazioak prozedura arruntaren bidez lizitatzeko. Lan horren ildotik, aurten hasi dira aseguru-kontratua lizitatzeko izapideak.

5.- Zine pelikulen hornidura

Gainera, zinema-filmak hornitzeko erabiltzen ziren kontratu txikiak aipatzen dira. Horri dagokionez, soilik aipatu behar da gaur egun 2021ean lizitatutako kontratu bat dagoela, kontratu txiki horien erabilerari amaiera eman ziona.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1.- Txostenak adierazten du Udalaren ibilgetu materialak ez duela barne hartzen 2016a baino lehenagoko azpiegituretako inbertsioen kostu garbia.



Abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuaren bidez Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitatea arautzeko esparru berria onartu izanak aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen ondare-elementuen aintzatespenean, balorazioan eta sailkapenean. Azpiegituren kasuan, ibilgetu material gisa birsailkatzen dira, baina balantzean aintzatesten dira, betiere balorazio fidagarria badago.

Ildo horretan, bere garaian zenbait zalantza izan genituenez, bai ondasun guztiak sartu beharko liratekeen, batzuk funtzionamenduan egon ez zitezkeelako, bai haien balorazioari buruz, urte batzuetako antzinatasuna zuten ondasun batzuk eskuratze-prezioan balioetsita zeudelako, elementu horiek ez aktibatzea erabaki zen, harik eta horien azterketa sakonagoa egin arte, baina ondasunen inbentarioan mantenduz.

Horregatik, 2020an ibilgetu materialean azpiegituren zenbatekoa sartu gabe ageri dira.

2021eko azaroaren 18an esleitu zen inbentarioa berrikusteko eta eguneratzeko kontratua, baina oraindik ez da amaitu. Lan hori amaitutakoan, elementu horiek modu fidagarrian gehitu ahal izango zaizkio ibilgetuari.

2.- Txostenean adierazten denez, 2007an 50 urterako emakidan esleitutako aparkalekua eta adinekoentzako zerbitzu-zentroak ere ez dira ibilgetu materialean sartzen, 13,9 milioi euroko eraikuntza-kostu zenbatetsiarekin.

Gure ustez, udalak gerontologia-zentroaren eta aparkalekuaren instalazioak itzultzeko eskubidea du 50 urteko epean, eta, alde horretatik, ibilgetu ukiezintzat hartu da.

Kontabilitate-araudiaren arabera, eskubide horiek aktiboan sartzeko, balorazio ekonomikoa egin behar da.

Ondasun horien balioa 50 urte barru kalkulatzeko zailtasunak direla eta, instalazioak ez ziren bere garaian ibilgetuan sartu.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

1.- Kontabilitate-programak (Sareko) 6. eta 7. taldeko kontuen aurka erregistratzen ditu itxitako ekitaldietako eskubidearen baliogabetzeak, baliogabetzeko arrazoiaren arabera.

Baliogabetzeak aurreko ekitaldietako emaitzetara egozteko, saldoak eskualdatuko dituen eskuzko idazpen bat egin beharrean, kontabilitate-programa aldatzeko aukera aztertu beharko da.

2.- Balantzearen pasibo korrontearen eskudiruzko fidantzen kontuari dagokionez, datorren urtean kontabilizatutako fidantzen galdagarritasun-maila aztertu nahi da, eta, egindako lanaren emaitzen arabera, hala badagokio, itzuli edo erregularizatu.

3.- Tolargi S.L.ri udalak egindako kudeaketa-gomendioari dagokionez, esan behar da 2022ko uztailaren 28an, Udaleko osoko bilkurak onartu zuela energia elektrikoaren banaketa-zerbitzua kudeatzeko gomendio hori amaitzea.



III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

1.- Hiri Izaerako Lurren Balio Gehitzearen Zergaren (HILBG) likidazioetan izandako atzerapenei dagokienez, adierazi behar da, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko otsailaren 16ko epaia ikusita, 2017. urteaz geroztik ez zela HILBGren likidazio berririk egin.

2020an, Sailak garai hartan giza baliabide gutxi zituen arren, zergaren likidazioak hasi ziren berriro, eskualdaketa zaharrenetatik hasita. Horregatik, diru-sarrera gehienak, txostenean adierazten den bezala, aurreko urteetako eskualdaketei dagozkie.

III.3 ATALA: LANGILERIA

1.- Udalbatza osoak onartutako ordainsarien igoerari buruzko publizitatea:

Udalak 2020 urtean ez zituen espresuki udal langileentzat onartutako ordainsarien akordioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu, izan ere publizitatearen betebeharra betetzat eman bait zen 2020 urtean udaleko Lanpostu zerrenda argitaratzearekin, hau da, 2020ko azaroaren 16ko 219. zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lanpostu guztien ordainsariak argitaratu ziren, hau da, lanpostu bakoitzari zegokion destino osagarri maila eta berariazko osagarria, dirutan zehaztua.

Dena den, hemendik aurrera udal langileen ordainsarien igoera onartzen duen akordioari publizitatea emango zaio, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuaz.

2.- Bitarteko funtzionarioen 11 izendapenak egiteko beste udaletako lan poltsak erabiltzearen inguruan.

Tolosako udalak 2021eko otsailaren 25ean aldi baterako lan poltsak kudeatzeko arautegia onartu zuen- Ondoren, 2021eko ekainaren 18an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen , eta arautegi honen 4 artikuluan, lan poltsen eraketa arautzen duen zatian araudiak xedatzen du lan poltsak erabiltzeko ordena eta lehentasuna zein den, honakoaren arabera:

- “1. Udal honetan hutsik dagoen edozein plazaren deialdiak lan-poltsa bat sortuko du, ariketa baztertzaille guztiak gainditzen dituzten oposizioegileekin, dagokien oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen arabera puntuazio-ordenaren arabera. Plaza jakin baten deialdiak sortutako poltsa bakoitza kategoria, talde, eskala, azpieskala eta mota berean lehendik indarrean dagoenaren gainetik egongo da.
2. Halakorik ezean, Udalaren beste lan-poltsa batzuk erabili ahal izango dira, bete beharreko funtzioetan eta eskatutako titulazio-mailan antzekotasun garbia dagoenean, betiere hautatutako pertsonak, lanpostu horri dagokionez, eskatutako baldintzak betetzen baditu lanpostuen zerrendan.
3. Lan-poltsarik ez badago, lanpostu jakin batzuk behin-behinean betetzeko berariazko poltsa bat sortzeko deialdia egin ahal izango da. Deialdi horiek ahalik eta arinen egin beharko dira, betiere publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz.



4. Urgentziazko eta behar egiaztatuengatik deialdi hori egiteko arrazoizko denborarik ez dagoenean, honela jardun ahal izango da:

Lehenik eta behin, beste administrazio publiko batzuek erabiltzeko aukera aurreikusita duten administrazio publikoetako lan-poltsetara joko da, ordena eta irismen honekin:

- Antzeko tamaina eta ezaugarriak dituzten beste udal batzuetako lan-poltsak.
- IVAPeko lan-poltsak.
- Beste administrazio publiko batzuen lan-poltsak.”

Bestetik, 190/2004 Dekretuak, urriaren 13koak, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duenak, bere 58.1 eta 58.3 artikuluan ezartzen du beste udal administrazio publikoetako lan poltsak erabili ahal izango direla, beti ere araudian aurreikusita dagoen heinean:

“ Artículo 58.– Selección.

1.- La selección del personal funcionario interino se hará mediante los procedimientos que establezca cada Administración en su normativa sobre la materia, que estará basada en todo caso en criterios que, posibilitando la máxima agilidad, aseguren los principios de igualdad, publicidad, mérito y capacidad.

2.- A falta de normativa específica la selección se hará, con carácter general, entre el personal aprobado en procesos selectivos para el acceso a la condición de personal funcionario o para la formación de bolsas de empleo temporal.

3.- Siempre que no impida una gestión eficiente de los recursos humanos, las Administraciones Públicas Vascas colaborarán entre sí, proporcionándose personal integrado en sus bolsas de empleo para el nombramiento de personal funcionario interino.”

4.- Langileen aseguruari buruzko aitortpena egiteari buruz.

2022. urteari dagokion aitortpenean sartuko dira langileei ordaintzen zaizkien bizitza aseguruari dagozkien gauzazko ordainsariak.

III.4 KONTRATAZIOA

1.- Proporzionaltasun sinplearen formula

Prezioaren formula aplikatzeari dagokionez, Udal hau ezin da bat etorri proporzionaltasun sinpleko formula bat erabiltzeagatik prezio-faktorearen balioa murrizten ari delako irizpidearekin, bai etxez etxeko laguntza-espedienteetan, bai Beotibar pilotalekuko ostalaritza-eraikinaren emakida-espedienteetan. Lehenik eta behin, faktore horren haztapena 51 puntukoa delako EELZren kasuan, eta 46 puntu ematearen kasuan, hau da, faktore erabakigarri eta/edo erabakigarri nabarmena direlako lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak baloratzeko orduan; eta bigarrenik, lizitatzailleen eskaintzak beste lizitatzaille batzuen eskaintzekin lotzen direlako. Bestela esanda, Kontratazio Aholku Batzordeen doktrinak ezarritako prezio-formulak aplikatzeko eskatzen duen oinarritzko baldintza betetzen da: prezioa baloratzeko formulek lizitatzailleen eskaintzak lizitazio-prezioarekin nahiz beste lizitatzaille batzuen eskaintzekin erlazionatzea.



Formula pleguetan ezarrita dagoen bezala, lizitatzailleek lortu beharreko puntuak zatidura bat aplikatuz lortzen dira. Zatidura horretan, baloratu beharreko eskaintzaren prezioa eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintzaren prezioa erlazionatzen dira. Horrela, bete egiten da prezio-formulei eskatzen zaien beste baldintza bat, aldeztatik lizitatzaille batek ezin izango duena jakin prezioaren formula aplikatuz lortuko duen puntuazioa. Ildo horretan, KEAOk hamaika aldiz adierazi du puntuazioa ez dela lizitazio-prezioari dagokionez bakarrik zehazten; izan ere, hala balitz, irizpideak bere helburuetako bat galduko luke, hau da, eskaintzak lehia eraginkorreko baldintzetan alderatzea (2014/24/EB Zuzentarauko 90 kontuan hartuz). Gainera, ziurgabetasuna ezabatzea lehia askearen printzipioaren aurkakoa da, eta erraztu egiten du enpresek Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (KEAO 84/2017 Ebazpena) 1. artikuluan debekatutako kolusiozko praktikak egiteko aukera; horregatik, Tolosako Udalak bi egoerak uztartzen dituen formula bat ezartzen du, lizitazioaren prezioarekiko eta lizitatzailleen eskaintzen arteko konparazioa.

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralak askotan adierazi du zentzu berean: "... Sobre los parámetros a los que debe ajustarse el órgano de contratación al establecer la fórmula para evaluar las proposiciones económicas dijimos en nuestra Resolución 906/2014 que "lo único que impone en este sentido el TRLCSP es que se concrete en el Pliego la fórmula elegida, que esta atribuya una puntuación superior a la oferta más barata y menor a la más cara y que se guarde la adecuada proporción en la atribución de puntos a las intermedias"... "Fuera de estos principios elementales, el órgano de contratación cuenta con un margen de libertad para decantarse por una u otra fórmula, para optar por una regla de absoluta proporcionalidad o, por el contrario, introducir modulaciones en ella que no sean arbitrarias ni carentes de lógica o, en fin, distribuir la puntuación por la baja que cada oferta realiza respecto del presupuesto de licitación o en proporción a la oferta más económica.".

3.- Beotibar frontoiko ostalaritza-eraikineko jabariko emakida, jatetxe eta kafetegi gisa ustiatzeko

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean Beotibar pilotalekuko ostalaritza-eraikinaren jabari-emakida kontratazio publikoaren atalaren barruan sartu den arren, kontratazio hori ez dela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak araututako kontratazio bat, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak; pleguek diotenez, ondare-negozio juridiko bat da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 9. artikuluan berariaz baztertuta dagoena, eta, beraz, ez litzateke sartu behar espediente hori kontratatazioari buruzko atal honetan. Toki-erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak arautzen dute.

Ildo beretik jo du Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegiaren 251/2020 Epaiak, 580/2019 prozedura arruntean. Epai horrek, gerora Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 79/2021 epaiak berretsia, ezin eztabaidatuzko eran



adierazten du emakidaren helburua dela jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatibo normala baimentzea. Emakida hori toki-erakundeen herri-jabariko ondasunei aplikatu beharreko ondare-legediak arautzen du, eta esleipenerako aplikatutako prozedura irekia publikitate eta lehia printzipioen mende dago, ondare-legerian eta pleguetan bertan araututa.

Are gehiago, epaiak dioenez, “Este tipo de contratos está excluido del ámbito de aplicación de la LCSP, rigiéndose por su legislación específica, con las dos siguientes excepciones: se aplicarán los principios de la LCSP para resolver las dudas y lagunas, así como las prescripciones de la norma cuando se hayan declarado de expresa aplicación al caso.”. Beraz, guztiz zehaztuta geratzen dira emakidaren xedea eta aplikatu beharreko legeria, hau da, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua. Hori dela eta, oso egiaztatuta dago emakida arautzen duten baldintza-agirietan erabilitako prezioa baloratzeko formula, hots, emakidaren legea, zuzenbidearen araberrakoak direla eta balioespen-mahaiak baliozkotasunez erabili dituela.

Lizitazio hori arautzen duten plegu teknikoetan jasota dagoenez, ostalaritza-eraikina egokitzeko aurrekontua 1.171.488,94 eurokoa zen, eta puntuaziorik handiena lortu zuen lizitatzailleak, eta, beraz, emakidaren esleipendun izan zenak, 1.010.055 euroko aurrekontua aurkeztu zuen bere eskaintzan, eta horietatik 741.855 euro obrari dagozkio. Hori horrela izanik, kontuan izan behar da gaur egun ez dagoela obra-amaieraren behin betiko likidaziorik, hau da, amaitu gabeko espedientea da; izan ere, Udaleko Hirigintza Sailak errekerimendu egokia egin du emakidaren esleipendunak egindako obra guztiak egiaztatu ditzan eta obren zenbatekoak justifika ditzan, dagokion obra amaierako kitapena egin ahal izateko. Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, baloratu egingo da, eta aurkeztutako proiektuarekin eta emakida arautzen duten baldintza-agiriekin lotuko da; aipatutako zenbatekoen artean behar bezalako egokitzapenik ez badago, espedientea berrikusiko da, baina gaur egun ez dago amaituta.

Ezinbestekoa da hemen aipatzea ostalaritza-establezimendua irekitzeko alde aurreko jakinarazpena egin behar dela, Zerbitzuen Europako Zuzentarauaren arabera, eta komunikazio hori eman daiteke, obra-amaieraren likidazioa egin ez bada ere.

III.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

Laguntza eta dirulaguntza izendunen deialdietarako diru-izendapenak biltzen dituzten gastuen 4. kapituluko 8 aurrekontu-partida egoteari dagokionez, 2023ko aurrekonturako dirulaguntza izendunetarako aurrekontu-partida desberdinak sartu nahi dira, gastuen egoera-orrian banan-banan ager daitezzen.

A.9 ERANSKINA AKTIBO EZ KORRONTEA

Txostenak adierazten du udalak inbentario eguneratua duela 2019ko abenduaren 31n.

Besterik gabe, adierazi behar da 2020ko abenduaren 31ko inbentarioa eguneratzeko lanak 2022ko maiatzean amaitu zirela, eta inbentarioaren eta abenduaren 31ko egoera-



balantzearen arteko kontziliazioa ere sartzen dela bertan, bien arteko aldeak islatzen eta azaltzen baitira.



ABREVIATURAS

AES	Ayudas de Emergencia Social.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CAG	Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
EPSV	Entidad de Previsión Social Voluntaria.
Erretengibel	Erretengibel Tolosako Alde Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko S.A.
FFFM	Fondo Foral de Financiación Municipal.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
ILT	Incapacidad Laboral Transitoria.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
RTGG	Remanente de Tesorería para Gastos Generales.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado la Cuenta General del Ayuntamiento de Tolosa para el ejercicio 2020.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el ejercicio fiscalizado.
- Contabilidad: conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son aplicables. La Cuenta General contiene el balance, la cuenta del resultado económico-patrimonial, la memoria y la liquidación del presupuesto del Ayuntamiento, de su organismo autónomo y de sus sociedades públicas.
- El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto, ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización se detallan en el epígrafe III de este informe.
